

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **WALDORF PEDAGOGIA, HEZKUNTZAN ESPIRITUALTASUNARI LEKU BAT EGITEN**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Alcázar Almarza, Nagore.

ZUZENDARIA: Tresserras Angulo, Alaitz.

**2021**

## LABURPENA

GRAL honetan Waldorf pedagogiara hurbilketa bat egiten da, hala nola pedagogia horren iturri filosofiko-espirtualetara. Pedagogia horren sortzaileak, Rudolf Steiner-ek, proposatzen dituen printzipio horien bidez, bai teorikoki zein praktikoki, espirtualtasunak eta irakasleek lehen haurtzaroan duten garrantzia aztertzen da. Horretarako eta printzipio pedagogiko horietan oinarrituta, Haur Hezkuntzan 39 urtetako esperientzia duen, Waldorf prestakuntza duen eta oso bestelakoa den Haurreskolaren egunerokotasunean pedagogia honen printzipioak gauzatzea lortzen duen hezitzaile baten ibilbide eta ezagutza aztertzen da. Haur Hezkuntzako irakaslearen esperientzia, GRAL-aren autorea den eta Haur Hezkuntzako Graduoko ikaslearen praktika-aldian burututako behaketa partehartzailearekin elkarrizketan jarri eta metodo kualitatibo bidez aztertzen da. Eraitzen eztabaida eta ondorioek espirtualtasunari haurtzaroan, irakaslearen prestakuntzan, eta Haurreskoletan integratzeko klabeak identifikatu eta zehazten ditu. Gainera, ikerketak irakaslegaiaren hazkuntza prozesuan izan duen inpaktua identifikatu eta irakaslegaiaren garapen pertsonalean egin ditzakeen ekarpenak antzematen ditu.

**GAKO-HITZAK:** Waldorf pedagogia, Haur Hezkuntza, lehen haurtzaroa, irakasle funtzioa, hezkuntza espirtuala.

## RESUMEN

En este GRAL se hace una aproximación a la pedagogía Waldorf, así como a las fuentes filosófico-espirituales de dicha pedagogía. A través de estos principios que propone su creador, Rudolf Steiner, se analiza, tanto teórica como prácticamente, la importancia de la espiritualidad y de la figura docente en la primera infancia. Para ello y en base a estos principios pedagógicos, se analiza la trayectoria y el conocimiento de una educadora con 39 años de experiencia en Educación Infantil, que tiene formación en pedagogía Waldorf y que aún trabajando en un contexto muy diferente, logra incorporar en la cotidianidad de la Escuela Infantil principios de dicha pedagogía. La experiencia de la profesora de Educación Infantil es puesta en diálogo y analizada mediante métodos cualitativos con la observación participativa realizada durante el periodo de prácticas de la alumna del Grado en Educación Infantil, autora del GRAL. El debate y las conclusiones de estos resultados identifican y definen las claves de integración de la espiritualidad en la infancia, en la formación de este profesorado y en las Escuelas Infantiles, así como el impacto de la investigación en el proceso de crecimiento del profesorado y sus posibles aportaciones al desarrollo personal de los mismos.

**PALABRAS CLAVE:** Pedagogía Waldorf, Educación Infantil, primera infancia, función docente, educación espiritual.

### **ABSTRAC**

This dissertation it is intended to make an approach to Waldorf pedagogy, as well as the philosophical-spiritual principles from which this pedagogy draws. Through these principles that the founder of this pedagogy; rudolf steiner, proposes both theoretically and practically, spirituality and the importance of teachers in early childhood are analyzed. For this, and based on these pedagogical principles, the trajectory and knowledge of an educator with 39 years of experience in Early Childhood Education, who has training in Waldorf education, and who even working in a very different context, manages to incorporate the principles of this pedagogy in the daily life of the Kindergarten. The experience of the Early Childhood Education teacher is put into dialogue and analyzed through qualitative methods with the participant observation carried out during the student's internship period of the Degree in Early Childhood Education, author of this dissertation. The debate and the conclusions of these results identify and define the keys to integrating spirituality in childhood, in the training of these teachers and in Kindergarten, as well as the impact of research on the growth process of teachers and their possible contributions to their personal development.

**KEY WORDS:** Waldorf Pedagogy, Early Childhood Education, early childhood, teaching function, spiritual education.

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....</b>	<b>1</b>
<b>2. MARKO TEORIKOA .....</b>	<b>2</b>
2.1. WALDORF PEDAGOGIAREN SORRERA ETA HEDAPENA. RUDOLF STEINER .....	2
2.1.1. <i>Antroposofia: Waldorf pedagogiaren oinarria</i> .....	3
2.1.2. <i>Gizakiaren lau dimentsioak</i> .....	4
2.2. HEZKUNTZA HOLISTIKOA .....	5
2.3. GIZAKIAREN GARAPENA: ZAZPI-URTEKOAK .....	6
2.4. LOREZAINAREN FUNTZIOA .....	7
2.4.1. <i>Imitazioa</i> .....	8
2.4.2. <i>Erritmoa, ohiturak eta borondatea Lorategian</i> .....	8
2.4.3. <i>Kutxu artistikoa</i> .....	9
2.4.4. <i>Hedatzea: jolas librea</i> .....	9
2.4.5. <i>Materiala</i> .....	10
2.4.6. <i>Biltzea: Ipuina</i> .....	11
<b>3. HELBURUAK .....</b>	<b>11</b>
<b>4. METODOA .....</b>	<b>12</b>
4.1. IKERKETAREN DISEINUA .....	12
4.2. TEKNIKAK .....	12
4.3. INFORMAZIOA AZTERTZEKO PROZEDURA .....	13
4.4. IKERKETAREN TESTUINGURUA ETA PARTEHARTZAILEAK .....	14
<b>5. EMAITZEN INTERPRETAZIOA .....</b>	<b>15</b>
5.1. HEZKUNTZA HOLISTIKOA .....	15
5.2. LEHENENGO ZAZPI-URTEKOA .....	17
5.3. LOREZAINAREN FUNTZIOA .....	18
5.3.1. <i>Imitazioa</i> .....	19
5.3.2. <i>Erritmoa</i> .....	19
5.3.3. <i>Edertasuna, kutxu artistikoa</i> .....	20
5.3.4. <i>Hedatzea: jolas librea</i> .....	21
5.3.5. <i>Materialak: naturala den guzti hori</i> .....	22
5.3.6. <i>Biltzea: arnas hartu</i> .....	23
<b>6. EZTABAIDAK ETA ONDORIOAK .....</b>	<b>24</b>
<b>7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK, ETORKIZUNEN ERRONKAK .....</b>	<b>26</b>
<b>8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....</b>	<b>26</b>
<b>9. ERANSKINAK .....</b>	<b>1</b>

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gizateria industria-gizartetik informazioaren gizartera igaro da, eta gizarte-, kultura- eta ekonomia-arazoak ez dira gelditu. Horrek guztiak pentsarazi dit gehiago jakitea ez dela nahikoa; hau da, bizitzeko modu materialista horrek, garenaren azalera baino ez du ikusten, eta, nire ustez, oinarritzkoena ahazten duela; beste hitzetan, bizi modu horrek gizakiak egiten gaituena ahaztu egiten duela.

Hori ekiditeko, eskola aldaketarako ardatza bezala ikustea inportantea da, eta irakasle izango naizenez, aldaketa horren parte izatea merezi dudala sentitu nahi dut. Horregatik, azken urteotan pedagogia alternatiboekiko interesa piztu zait.

Horri dagokionez, Sandin-ek (2003b) hiru elementu garrantzitsu nabarmentzen ditu ikerketari eta irakaskuntzari dagokienez: Bat, gizartearen zerbitzura egon behar dutela, bi, jakintza zentzu zabalean suspertu behar dutela, eta hiru, lanbide-heziketa eta prestakuntza pertsonala sustatu behar dutela.

Haur Hezkuntza Graduaren azken etapan, 2018. urtean, hainbat pedagogiaren bila hasi nintzen, eta Waldorf pedagogiarekin egin nuen topo. Horrela, hezkuntzan lan egiteko filosofiaren inguruan jakinmina piztu eta Waldorf eskola bateko ate irekietan parte hartu nuen.

Eskola horren giroak eta izaera humanistikoak benetan erakarri eta hunkitu ninduten. Giro alaiak, artistikoak, estetika naturalak eta fantastikoak, ipuin baten barruan egongo banintz bezala sentiarazi ninduen. Gainera, ohartu nintzen mundu akademikoan esparru teoriko konbentzionaletik aldentzen diren Waldorf pedagogia bezalako proposamen sakonen oinarriak zehaztasunez aztertzen dituzten lanak isolatuak direla.

Ikuspuntu humano eta holistiko horrek, pedagogia honetan gehiago aztertzerako eraman ninduen eta momentu hartan ekarpen aberasgarria egiten duela haurtzaroan eta irakaslearen prestakuntzan konturatu naiz. Horrek bereziki animatu nau ikerketa lan hau burutzera.

Hori horrela, Waldorf pedagogia osotasunean ulertzeko antroposofiaren ikuspuntu esoterikoa eta espirituala azaltzea ezinbestekoa da. Horrekin guztiarekin, emaitzen txostena egiteko behar den informazioa bildu da metodo kualitatiboen bidez. Emaitzak Waldorf hezkuntzaren arloko bibliografiak marko teorikoan jasotzen diren oso antzekoak izatea espero dena; eta hori da hain zuzen, ikerketa- lan xume honen ekarpena hezkuntzari, irakaslearen prestakuntzari, zein gizarteari. Gainera, espero dut etorkizuneko ikerketetarako bideak ireki ahal izatea, horrela, lehen haurtzaroko benetakoko beharrei, eta ondorioz etorkizuneko gizartearen beharrei erantzutea.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. Waldorf Pedagogiaren sorrera eta hedapena. Rudolf Steiner

Waldorf pedagogia ulertzeko, bere sortzailea Rudolf Steiner nor den ezagutzea garrantzitsua da. Rudolf Steiner 1861. Urtean Austriako Kralje- vi-ç-en jaio zen, familia pobre batean eta Suitzako Dornach- en hil zen 64 urte zituela. Testuinguru horrek eragin handia izan zuen bere lanean, izan ere, I. mundu gerraren amaierarekin batera, mundua eta gizartea era ezberdinean berreraikitze beharra ikusi zuen. Hezkuntzan, ikaslea zela, ibilbide luzea egin zuen. Hasieran, institutuko irakaslea izateko prestatu zen; gerora, filosofia eta letretako doktoretzak egin zituen, eta azkenik, goi-mailako ikerkuntzako bidea hartzeko, matematika, fisika eta zientzietako ikasketak ere egin zituen. Bere bizitzan zehar aportazio handiak egin zituen antroposofia filosofian oinarrituz. Guztira, 30 liburu idatzi eta 6.000 hitzaldi eman zituen (Txurruka, 2017; Quiroga, 2018a).

Goethek Steinerren lanean eragin handia izan zuen (Melé, 2019a). Goetheren lanak giza adimenak dituen barne eta kanpoko mundua bateratzen ditu, eta horren lanari esker Steinerrek txikitatik edukitako esperientzia espiritualei esanahia emateko aukera izan zuen (Quiroga, 2018a). Hori dela eta, filosofiaren munduan murgildu zen eta Teosofiaren jarraitzaile egin zen. 1912an Teosofia alde batera utzi eta bere filosofia sortu zuen Antroposofia edo zientzia espirituala deitutakoa. Lan guztietan gizakiaren izaera eta patua aztertzen zituen, aurrerago sakonago azalduko den bezala (Steiner, 2014a).

Antroposofiak eragin handia izan zuen Waldorf pedagogian. Era berean, Waldorf pedagogiak arrakasta handia eduki zuen bere garaian, eta XIX. mendean sortutako pedagogia bada ere, oraindik badu lekurik gaur egungo gizartean. Horrez gain, bere garaian beste disziplina batzuen inspirazio iturri bilakatu zen, hala nola: nekazaritza biodinamikoa, medikuntza antroposofikoa, terapia artistikoak, farmakopea, eta gizartearen eta erakundearen antolakuntzarako hiruko eredua (Martner, 2016; Tormes, Gómez eta Malagón, 2019).

Waldorf pedagogia Alemanian sortu zen, I. mundu-gerraren aurreko kaos sozial eta ekonomikoaren erdian. Steiner-ek pentsatzen zuen Europako berreraikuntza sozial eta kulturala egitea ezinbestekoa zela eta Stuttgart hirian arrakasta ikaragarria izan zuen (Tormes, Gómez; Malagón, 2019).

Garai hartan, Steinerrek Waldorf Astoria izeneko zigarro-fabrikako langileentzat gau eskolak sortu zituen. Horrez gain, Emil Molt-ek, fabrikaren jabeak, langileen seme-alaben hezkuntzara bideratzen zuen mozkinen zati bat. Steiner diru horrekin sortutako eskolan irakaskuntzaz, ikastetxearen antolaketaz eta irakasle taldearen prestakuntzaz arduratzen zen (Txurruka, 2017; Carlgren, 1989).

Steinerrek pedagogia baten oinarri metodologiko eta didaktikoak garatu zituen eta horretarako, giza izaeraren ezagutzan zentratu zen eta gizakiaren eboluzioa hainbat faseren bidez zehaztu zuen. Steinerrek bost urtez zuzendu zuen eskola berri hau eta bere helburua, hezkuntza eta gizarte biziago bat bermatzea izan zen (Carlgren, 1989).

Waldorf pedagogiaren arrakasta ez zen Alemaniara mugatu, eta laster Europako eta Ameriketako beste hiri batzuetara hedatu zen. Alabaina, II. Mundu Gerran eskola asko itxi ziren, nahiz eta batzuk klandestinitatean garatzen jarraitu zuten. Gaur egun, Waldorf pedagogia modu ofizialean lantzen duten Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko bi mila eskola baino gehiago daude (Moreno, 2010).

Espanian, Waldorf ikastetxeen elkarteak 2000. urtean sortu zen, eta gaur egun 70 ikastetxetik gora daude. Hor topatu dezakegun prestakuntza Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino iristen da kasu askotan. Pedagogia honetan oinarritzen diren hezkuntza espazioak oso anitzak dira, adibidez *Madres de Día* sarea Waldorf pedagogian oinarritzen da eta 20 etxe baino gehiago ditu (Quiroga, 2018a).

Euskal herrian Waldorf eskola ofiziala ere badago, Geroa Eskola izenekoa. Bertan, haurren eta profesionalen formakuntzaz arduratzen dira. Horrez gain badaude Waldorf pedagogian oinarritutako beste zenbait zentro (Geroa eskola, d.g.).

### **2.1.1. Antroposofia: Waldorf pedagogiaren oinarria**

Antroposofia, hitz gutxitan, berrikuntza espiritualerako mugimendu bat da, gizakia erdigunean duena (Melé, 2019b; Steiner, 1922).

Antroposofiaren ideiak hasiera batean abstraktuak izan daitezkeen arren, horiei erreferentzia egiten dieten testuak ospetsuak diren idazleen idatzietan topa ditzakegu. Adibidez, testu ezagunenetakoa hurrengo esaldia topatu dezakegu: *“Hona hemen nire sekretua, ezin da sinpleagoa izan: bakarrik bihotzarekin ondo ikusten da, funtsezkoa begietarako ikusezina da”* (de Saint Exupéry, 2001, 44 or.).

Steiner-ek (2014a) azaltzen du gizakiaren izaeraren alderdi bat ezkutuan dagoela. Bere ustez, gizakia ulertzeko ezin da soilik ezagutzen den zientzia naturalak eskaintzen dituen teoretan oinarritu (Berlin 1991). Gizakia bere osotasunean ulertzeko, zientzia ezkutua erabili behar da, antroposofia bezala ezagutzen dena. Zientzia horrek, autorearen arabera, ezagunak zaizkigun zientzia oro bildu eta errespetatzen ditu, alderdi ezkutua erdigunean jarriz. Antroposofiaren bidez, gizakiaren jakinduria eta gizakiak egin dezakeena osotasun batean ulertu ahalko da (Steiner 2014a; Steiner d.g.).

Zientzia antroposofikoak bai fenomeno sentsoari (begiekin ikus ditzakegunei), bai errealitate ikusezinari erreparatzen die; errealitate horiek ikertzen ditu, gizakiaren arima eta izpiritua bere ikerketatresnak bilakatuz. Hau da, gizakia aldi berean ikerketa-objektu eta tresna da. Antroposofiak giza arima bakoitzean ezkututzen diren pertzepzio espiritualeko ahalmenak pizteko bidea adierazten du, autohezkuntzaren bidez helduen kasuan eta imitazioaren bidez haurrengan (Berlin, 1991; Gherbasi, 2015).

## **2.1.2. Gizakiaren lau dimentsioak**

Antroposofiak, gizakia ulertzeko lau dimentsioren beharra dagoela antzematen du: Gorputz fisikoa, gorputz eteriko edo biforikoa, gorputz animikoa eta nia edo gorputz espirituala. Azkenengo hiru horien bidez, gizakiak mundu materialetik at dagoen orori zentzua ematen dio (Melé, 2019b).

Steinerrek filosofia hau gorputzeko gizakiaren bizitza fisikoari erreparatu dio, eta horretarako, haurtzarora abiapuntutzat hartu du. Steiner-ek umea hazi batekin konparatzen du. Haurra hazi batekin konparatuz gero, landarea izango den hazi horretan; hau da, hazian bertan etorkizuneko landarearen oinarriak daude (edukiko dituen adarrak, hostoak, enborra, fruituak eta abar ageri dira). Haurrarekin antzeko zerbait gertatzen da, baina giza bizitza konplexuagoa denez, hortik lortzen diren emaitzak beti desberdinak eta bakarrak izango dira (Wolf, 2019; Berlín, 1991; Steiner, d.g.).

Antroposofiak dio gizaki oro lau gorputzez osatua dagoela; lehena gorputz fisikoa da, ikusten den gorputza. Gorputz fisiko horrek ez dauka bizitzarik eta mineralek, landareek eta animaliek dituzten gorputz fisikoen ezaugarriak partekatzen ditu. Beraz, gorputz fisikoa da gure zentzumen fisikoekin ikusi eta sentitu dezakeguna. Horrek mundu sentsoriala barne biltzen du eta bera bakarrik analizatuta, bizigabea da, beste hitz batzuetan, gorputz fisikoa mundu materialari dagokion hori da. Gainerako gorputz guztiek izaera ezkutua dute, gure zentzumen fisikoek pertzibitu ezin duten izaera suprasentsoriala daukatelako (Berlín, 1991; Steiner, 2012; Steiner 2014a).

Aztertuko den bigarren gorputza, gorputz eteriko edo biforikoa da, lehenengoari bizitza eta forma ematen diona. Horregatik gorputz hau gizaki landare eta animaliangan baino ez dago topatzerik. Ideia hau haragiztatzeko eta gizakiengan nola funtzionatzen duen ulertzeko Steinerren adibidea erabiliko da (Berlín, 1991); pertsona bat koman geratzen denean, badakigu gorputzak ez daukala inolako sentsaziorik. Gorputza bizirik dago, baina aurrerago azalduko diren beste bi gorputzak ez (Steiner, 2014a).

Hirugarren gorputza berriz, gorputz eterikoa da, gizakiok eta animaliak partekatzen duguna. Atsegina eta desatsegina, plazera eta atsekabea, sinpatia eta antipatia, hau da, sentsazioei eta behar fisikoei erantzuten diena. Gorputz animikoak kanpo mundutik estimuluak jasotzen ditu, gorputz fisikoa garraibidetzat erabiliz. Modu horretan, bere barne-mundua sortzeko gai da. Gorputz animikoa animaliangan eta gizakiengan topatzen bada ere, izateko era oso bestelakoak ditu. Hau da, gizaki orok bere gorputz animikoa dauka. Animalien kasuan, berriz, animalia talde bakoitzak gorputz animiko bakarra elkarbanatzen du (Steiner, 2014a).

*“ Cuando el hombre se duerme, cambia la ensambladura de sus miembros constitutivos. La parte que del durmiente reposa en el lecho, contienen el cuerpo físico y el vital, mas no el cuerpo astral y el yo ” (77 or.).*

Azkenik, Nia deituriko gorputza daukagu, gizakiak bakarrik bereganatzen duena eta bere balioa, besteekin alderatuz, nagusia da. Laugarren gorputz espiritual horri esker, gizabanako bakoitza pentsatzeko eta hausnartzeko gai da, horregatik auto-kontzientzia dauka. Bere burua izendatzeko gai



den izaki bakarra da gizakia, hau da, bere burua izaki autonomo gisa ikusten du. Niari esker, gizakiak ez ditu bere bulkada eta grinak zehatz-mehatz betetzen, animaliek egiten duten bezala (Steiner, 2012).

Antroposofiaren arabera, gizaki orok munduan patu edo zeregin bat dauka. Patu horren arrazoi nagusia berragariztatzean oinarritzen da. Steinerren hitzetan, gorputz fisikoa eta eterikoaren parte bat hiltzen bada ere, gorputz animiko eta espirituala hilezkorrak dira. Beraz, aurretik aipatutako gizakiaren alderdi batzuk hiltzean, besteak mundu espiritualera bueltatzen dira, berriz ere beste gorputz fisiko batean haragiztatu arte. Modu horretan, aurreko bizitzetan bete ahal izango ditu bete gabe gelditu diren helburuak eta helburu berriak (denak ere patuaren baitan barne biltzen direnak) (Berlín, 1991; Steiner, 2014a).

Steiner-ren (2014a) hitzetan:

*“[...] también la muerte se produce simplemente en virtud de una modificación en la conexión de los miembros constitutivos de la entidad humana[...] Al dormirse el hombre, el cuerpo astral rompe únicamente el lazo que lo une con los cuerpos vital y físico, mientras que estos dos continúan unidos entre sí; en cambio, con la muerte, el cuerpo físico se separa del cuerpo vital [...]. El cuerpo vital pasa a un estado en que nunca se había encontrado. Durante el nacimiento y la muerte [...] mas tarde, el cuerpo astral se separa también del etéreo y prosigue su ruta sin éste. Durante el tiempo que pertenece unido al cuerpo astral [...] utiliza sus fuerzas para fines diferentes[...] las utiliza para hacer perceptibles los procesos propios del cuerpo astral” (85-87 or.).*

## **2.2. Hezkuntza holistikoa**

Steinerren helburu nagusia pertsona askeak heztea da. Askatasunari buruz zeukan ideia ulertzeko, aintzat hartu behar da pertsona bakoitzak munduan bere tokia eta egin beharra duela; hau da, pertsona oro mundu fisikora helburu batekin iristen dela ulertu behar da. Horregatik, askatasunaz mintzatzean, herentziaz jasotzen den horren aurka joan eta mundu espiritualak dakarzkigun helburuak lortzeko egin beharreko bideaz ari da (Quiroga, 2013; Rawson, 2017).

Esan bezala, Waldorf pedagogia oinarritzen da aipatutako alderdi filosofikoan, mundua eta gizakia behatzeko eta ulertzeko, antroposofian alegia. Pedagogian, bere baitan gizakiak bereganatu behar dituen alderdi hauek dira nagusi: borondatea, sentitzea eta pentsatzea (Collado, 2016). “Prestakuntza hirukoitza” izenpean, pentsatu, sentitu eta egiteko gaitasunen arteko oreka osasuntsua lortzeko asmoa bilatzen dute Waldorf eskolek, haurrak modu holistikokoan garatu daitezkeen. Prestakuntza horren helburua hau da: haurrak modu orekatuan heztea barne eta kanpoko ezagutzak zeharka eta zuzenean landuz. Horrela, haurrak helduaroan gizarteari aportazioak egin ahalko dizkio (Geroa eskola, d.g.).

Gaur egungo pentsamendu intelektuala oso baloratua badago ere, Steiner-rek dioenez jakinduria intelektual hori ez da nahikoa izaten (Edmunds 2013; O`Neil 2013 eta Klein 2013). Waldorf pedagogiaren ustez, maitasunak pedagogian lekua behar du, horregatik, bere pedagogian berebiziko

garrantzia dauka maitasunak. Maitasuna gizakiaren sentimendu gorena bezala ulertzen du autoreak. Beraz, maitasunaren pedagogia deitu dakioke (Collado, 2016; Edmunds, 2013; Martínez, 2019).

### **2.3. Gizakiaren garapena: zazpi-urtekoak<sup>1</sup>**

Steinerren aburuz, jaio-berria, haragiztatu berria da eta lurrera iritsi baino lehen, mundu espiritualean izandako bizipenak berarekin ekartzen ditu, kohesio gutxirekin bada ere. Helduarekin konparatuz, jaisten den izaki horrek izaera espiritualagoa dauka (Martínez, 2019). Hasieran, organismo fisikoa herentzia-indarren menpe dago. Horregatik, haurra jaiotzean, hau da, bere izpiritua gorputzera iristean, prozesua abiarazten da. Prozesu horretan herentziak dakartzan ezaugarrien eta izpirituak dituen izatearen arteko talka dago, haurrak zazpi urte bete arte iraungo duena (Edmunds, 2013; Steiner, 2014b; Pereira, 2006).

Idea hori hobeto ulertzeko Gámez de Rusek (2019) dio, haurra gorputz berrira egokitze frogaren enpiriko bat haurraren ibileran ikus daitekeela. Izan ere, bere ibilera astronauten modukoa da, horren arrazoia, adibide batekin azaldu dezakegu. Haurrek gorputz berri batean sartzean mugimendu traketsak izango dituzte. Horren zioa da Niari lotuta dagoela, are gehiago, etapa honetan haurren niaren zati handiena bere gorputzetik kanpo dago eta gorputza bezain erreala da. Hori dela eta, haurra guztiz haragiztatu arte, gorputzetik kanpo bizi dela esan daiteke, eta gorputza guztiz mendean hartu arte, espazioaren eta denboraren egituretan jarri behar da. Bestela esanda, mugimenduak, erritmoak eta errutinak konkistatu behar ditu (Steiner, 2013a).

Aurreko ebidentziez gain, lehenengo zazpi-urteko honetan, ikusten ez diren aldaketa batzuk ere gertatzen dira. Organo fisikoen eta organo sensorialen egitura eta funtzioak antolatzen dira, eta berriz ere izpiritua herentziaren indarren kontra borrokatzen da (Edmunds, 2013). Haurraren gorputza niari errenditzen zatazio, horregatik, Steiner-ren arabera haurrak modu erlijioso batean habitatzen duela mundua esan dezakegu (Baldissin, 2019, Pereira 2006; Steiner, 2014b).

0-7 etaparen amaieran, beste gorputz bat jaiotzen da. Une horretan, lurreko herentziaren indar fisikoak giza banakotasunarekin (Nlarekin) borrokatzen dira. Umeak jaiotza-aurreko edo lurperatu aurreko bizitzatik nia dakar. Nia hori beste bizitza batzuen emaitza da, hau da, beste bizitzetako esperientzietatik jakintza eta kualitate espiritualak dakartza. Hala izanik, haurrek hezkuntza era egokian ulertzeko, kontuan hartu behar da zer aldaketa fisiko, psikiko eta espiritual gertatzen diren gizakiarengan lehenengo zazpi-urtekoan (Lievegoed, 2013).

Aipatutako aldaketa fisiko, psikiko eta espiritualekin batera, lehenengo hiru urteetan, gizakiaren gainerako bizitzan eragina izango dituzten hiru lorpen ebolutiboak gertatzen dira: ibili, mintzatu eta pentsatu (Quiroga, 2013; Köning, 2014). Steiner-ren (2013a) aburuz, ibiltzearen, hitzaren eta pentsamenduaren arteko erlazioa funtsezkoa da hezkuntza arloan, izan ere, bere biziko garrantzia

---

<sup>1</sup> *Septenio* hitza zazpi-urtekoa kontzeptuagatik itzuli da.

hartzen du hirurak lotuta baitoaz. Halaber, gizakia honela ikusten du: gizakia, izaki bakarra da hizkuntza kodeatua eta kontzientea erabiltzen duena, eta horrez gain, ideiak sortzen dituena.

Padovan-ek (1997) Temple Fay-ken antolaketa neurologikoaren teoria aipatzen du, baieztapen horren emaitza enpirikoak erakusteko. Bere entseguetan, berrantolaketa neuronaleko terapien bidez, haurren neurona-garapena hobetu egiten zela egiaztatu zuen. Pazienteei haurrek naturalki egiten dituzten mugimenduak eraginez, hala nola katamarka ibili, lurreko birak eta erreflexuak, besteak beste. Horrek aurreko eredu neuronalak ezartzen lagundu zuen, paziente askoren hitz egiteko gaitasunean.

## **2.4 Lorezaintzaren funtzioa**

Haur hezkuntzan, hezitzaileari Lorezaina deitzen zaio. Lorategia Kindergarten alemanieraren hitzetik zuzenean, eta Waldorf eskoletan esanahi literala dauka. Hau da, lorezainak umeak lore bakarrak eta errepikagabeak bezala zaintzen ditu (Quiroga 2018b).

Lorezaina eta lorategiaren esanahia azalduta, gizakiaren eta, bereziki, 0tik 7rako haurraren formazioaren oinarriko printzipioak kontuan hartuz, irakasleak lorategian duen garrantzia azaldu beharra dago (Edmunds, 2013).

Giroan dagoen guztiak haurraren eragiten du, hau da, giroan dagoenak umearekin dar-dar egiten du. Umeak helduarekin duen lotura estuagatik, helduak haurraren aurrean bizi duenak, sentimenduak eta pentsamenduak barne, hunkitu egiten du (Steiner, 2013b; López, 2018). Horregatik, ez da gutxietsi behar hezitzailearen eta heldu erreferenteen eginkizuna.

Irakaslearen zeregin nagusietako bat da haurraren inguruan giro biltzaile eta babeslea sortzea (Edmunds, 2013). Giro abegikorra sortzearen ideiarekin batera Kranich-ek (2013a) dio hezitzailearen izaeraren garrantzia sarritan gutxiesten dela. Hezitzailearen izaera animikoa haurraren eta umearen keinu eta jokabideetan islatzen da. Gauzak horrela, helduak bere pentsamendu, sentimendu eta ekintzetan koherente izan behar du. Beraz, haurrek hori senti dezaten, eskolaurreko hezkuntzaren etapan lorezainek beren bizitzan alderdi ona eta egiazkoa barneratzea ezinbestekoa da (López, 2018). Horrek hezitzailearen inplikazioa eta exijentzia handia eskatzen du, Lorezaintzaren zereginak "bestearen" ezagutza eskatzen baitu. Horretarako entzumen zintzoa egin behar da. Hau da, epaitzen ez duen entzumena egin behar da. Hori era egokian egiteko, entrenamendua eta auto-formakuntza naitaezkoa da dimentsio ezberdinetan (espiritualean, fisikoan eta animikoan), "bestearen" edo desberdina denaren kontrakoa bezala ez ulertzeko, baizik eta alderdi osagarria bezala. Horrek auto-behaketa egiteko bidea ahalbidetzen du, eta autokontzientzia indartu eta fintzen da (Lopez, 2018).

Lorezainak kanpoan eta ikasgelan egiten du lan. Nahiz eta eguna betebeharrak eta tentsio askorekin igaro, haurra "pentsamenduan eraman" behar du. Poza eta esker ona adierazi, hizkuntza aberatsa eta artista izan behar du, berezko erritmoa izan, elikatu eta ohitura osasungarriak eta zuzenak izan behar ditu. Irakaslearen lanak ez du atsedunik hartzen, buru- belarri aritu behar da, eta bizi modu bezala ulertzen du (Glöckler, 2016).

Hori horrela, hezitzailearen lana ez da intelektualki ulertu behar (Steiner 2013a). Izan ere, Rawson-ek (2007) dioen moduan, Waldorf pedagogia, berez, ez da existitzen, baizik eta metodologia bizia da, non hezitzaileak haurrari jainkozko gurtzea erakusten dion. Hori guztia praktikan jartzeko, hezitzailearen ariman benetan bibratzea ezinbestekoa da (Berlín, 1991).

Esan bezala, haurra lurrera iristeko orduan gorputzetik kanpo bizi da. Ideia horretatik abiatuta, haurra gorputz osoarekin mundura entregatzen dela ulertzen du Steiner-rek (2013). Beraz, kanpoko estimulu guztiek eragin handia izango dute haurraren gain. Etapa honetan, umea bera organo sensoriala da (Von Kügelgen, 2013b) eta helduak biziko dituen sentimendu eta pentsamenduek haurraren gain dar-dar egingo dute. Horregatik, lorezainak dar-dar egin behar du umea kaltetu gabe, horretarako zaindu behar ditu bere pentsamenduak, sentimenduak eta egiten duenak (Quiroga eta Igelmo, 2013; Carlgren, 1989; Berlín, 1992).

Hori guztia hartuta, haurraren lehenengo zazpi-urtekoan haurraren garapenerako garrantzi handia hartuko du imitazioak (Kügelgen, 2013a).

#### **2.4.1. Imitazioa**

Lorezainak imitatzeko moduko pertsona izan behar du bere alderdi guztietan, eta umeari morala dena bakarrik eskainiko dio (Steiner, 2013b). Etapa horretan; haurraren inguruko pertsonen egindako ekintzei osorik entregatzen dela ulertzea funtsezkoa da. Beste hitzetan esanda, helduaren begirada bere barnean sartzen da. Harreman hori, erlijiosoa bezala bizi du Lorezainak; horrela, gorputz fisikora transferitzen dio eta eragin zuzena egiten dio (Von Kügelgen, 2013a).

Imitazio indar horiei esker, helduak egiten duena haurrek errepikatzen dute beren jolasetan. Waldorf lorategietan giro familiar eta etxeak sortzen da, non helduak sukaldatzen, josten, gantxilo egiten eta etxeak lanak egiten dituen. Giro horretan, haurrek adimen-trebetasunak garatu ditzaten, etxeak zereginak betetzen dira (Jaffke 2013; Clouder eta Rawson 2009; Von Grunelius 2013). Auerrek (2007) hitz gutxitan laburbiltzen du, "haz bizkorrek adimen arinak osatzen dituzte" (44 or.).

Umeak imitazioaren eredu argia izan behar du, eta, arestian aipatu den moduan, Lorezainak hainbat ikuspegitik elikatu behar da (fisikoki, animikoki eta espiritualki) (Steiner 2013a, 2013 a Kranich 2013a; Kranich, 2013b; O`neil, 2013). Helduak ez du imitatzeko itxura eman behar, baizik eta benetan sentitu behar du (Lievegoed, 2013; Steiner 2013b).

#### **2.4.2. Erritmoa, ohiturak eta borondatea Lorategian**

Erritmoa lorategiko alderdi askotan islatzen da; ez da haurraren bakarrik aplikatzen den zerbait. Eguneko antolakuntza, urtarokotasunaren arabera eginkizunetan, ipuinetan eta musikan; baina, batez ere, lorezainaren barneko erritmoan oinarritzen da (Steiner, 2013b).

Pedagogia honen ezagutzak umeek garatzeko eta ikasteko duten erritmo desberdinen inguruan hausnartzen eta errespetatzen laguntzen du. Hau da, erritmo desberdin horiek umearen eta hezitzailearen erronka gisa ulertzen dira (Seydel, 2012).

Lehenengo zazpi-urteko etapan lorazainaren izaerak haurraren eragin zuzena du (Von Kügelgen, 2013a). Horregatik, irakasleak bere izaeran oreka harmonikoa izan behar du. Horretarako, oreka hori erritmoan ikuspuntu desberdinetatik garatu eta barneratu behar du, irakaslearen zereginak (kanpotik ikusten dena) bere barne-izaeraren isla izanik.

Gauzak horrela, ez da metodologia zehatz bat erabiltzen, baizik eta ikasle eta irakasleen arteko bat-bateko eta berdingabeko prozesua da. Beraz, egunerokotasuneko praktikak esango du nola jokatu behar den koherente izateko. Haurraren hasten den guztiak arnasketa-erritmo logiko bat izan behar du (Steiner 2013b; Baldissin, 2019; Badilla, 2016; Schöttner, 2013).

Erritmoaren orekatua lortzeko, etapa honetan lorazainaren eginkizuna funtsezkoa izango da, babes fisikoari arreta berezia jartzen baitzaio. Arnas hartu eta arnas botatzearen orekarekin konparatuz, lo egiten, jaten eta jolasten ikasi behar du, eta horretarako jardueraren eta atsedeneren arteko oreka erregulatuko du (Baldissin, 2019). Esate baterako, arnas botatzea jolas librearekin eta mugimendu librearekin gertatzen da. Arnas hartzea, aldiz, lan lasaiago eta gidatuagoa egiten denean gertatzen da (Badilla, 2016). Arnasketa hori, egunero, astero eta urtero errepikatzearen bidez, haurraren ohitura osasungarriak sortzen dira, eta ohitura inkontziente horien bidez borondatearen oinarria finkatzen da (Steiner, 2014; Wiechert, 2016). Eginkizun hauetan ez dago inposaketarik, ez saririk, ez zigorrik; horrela, umeen autonomia garatu eta elikatzen da (López, 2018).

### **2.4.3. Kutxu artistikoa**

Lan borondate guztiek nekatu egiten dute, lan artistikoei eta erritmikoei, aldiz, ez. Hori dela eta, lorategietan borondatea eskatzen duen lan orok ezaugarri artistikoa dauka, musikala eta erritmikoa bereziki, haurrari egiten duen horretan gozamenaren eta ongizatearen barne-zentzua transmititzen diona (Steiner, 2013c).

Horrela, lorezain bakoitzak gaitasun artistikoak garatzen eta elikatzen ditu bere zereginen. Adibide argi bat da lorazain bakoitzak ahotsa afinatu behar duela, kantatzean doinu melodiatsu eta harmonikoa lortzeko (López, 2018; Schöttner, 2013).

### **2.4.4. Hedatzea: jolas libre**

Aipatu den arnasketa sistemaren antolakuntza, hedatze eta biltzeko jarduerak erraztuz gertatzen da. Hau da, goizeko lehenengo momentuan hedapena ematen da jolas librearen bidez (Schöttner, 2013). Jolasak lorategian berebiziko garrantzia du, hau da, haurren energiak jolasetik urruntzeak eta lan intelektualean goizegi sartzak umearen bizitasuna eta osasuna kaltetzen dute (Barnes, 2015). Hori dela eta, etapa honetan, jarduera nagusia jolasa da. Jolas askearen bidez, haurrek inguruko mundua barneratzen dute; hor espazioaren esperimentazioarekin eta irudikapenarekin fantasia garatzen dute. Jolasaren bidez, haurrek egoera eta zailtasun espezifikoetarako irtenbide esanguratsuak aurkitzen dituzte (Badilla, 2016). Jolasaren bidez ingurunea ezagutzen da. Izan ere, jolasetik abiatuta, ezagutza hori indartu egiten da eta bere ingurunea ezagutzeko ezinbestekoa da. Horrela, bere gorputz

eterikoaren edo bizi gorputzaren bidez bere izaera animikoa indartzen da (López, 2018). Carbonell-ek (2015) dioten bezala:

“(...) bertan, gorputz-trebetasunaz gain, fantasia ere garatzen da, eta, gero, ekimen pertsonal eta pentsamendu sortzaile bihurtzen da. (...) Jolas eta lan horretan gorputzaren mugimenduekin, hitzak, zenbakiak eta beste kontzeptu asko ikasten dira” (273 or.)

Jolas guneean, zentzumenak aktibatzeak eta zaintzeak garrantzi handia du. Hori lortzeko, inguru prestatzea funtsezkoa da (Weissman, 2017).

Hori dela eta, Waldorf pedagogiarentzat haurren jolas libreari etengabe arreta jartzea nahitaezkoa da. Hezitzaileak ez du zuzenean haurren jardueretan parte hartuko, baizik eta behaketa egingo du (Weissman, 2017). Jolasak hezitzaileari haurren izate-irudia egiten laguntzen dio, hau da, jolasean haurrak duen banakotasuna erakusten du, eta horrek irakasleari haurrak dituen oztopoak ekiditeko bidea ematen dio (Quiroga, 2013).

#### **2.4.5. Materiala**

Jolas guneean, zentzumenak aktibatzeak eta zaintzea izugarritzko garrantzia du (Von Kügelgen, 2013b). Hori lortzeko, materialari eta inguruari arreta jartzea funtsezkoa da (Weissman, 2017).

Hurrei jolasteko ematen zaizkien materialak asko zaintzen dira. Ukimenaren zentzumena garatzeko, material naturalak eta baliotasunak eskaintzen dira, naturaren elementuek tenperatura eta egitura desberdinak bizitzeko aukera ematen baitute (Weissman, 2017; Rawson eta Richter, 2000). Norberaren jardura sustatuko duen jolas-materiala da, fantasiari lekua utziko dioten eta prestakuntzarako aukera asko eragingo dituzten objektu eta material errazak alegia.

Naturala den materiala zer den hobeto ulertzeko Steiner- rek (d.g.) azaltzen du haurrak aurrez ezarritako funtziorik gabeko ingurune materiala behar duela, hau da, kultura-prozesuaren mende ez dagoena eta haurren jolasa baldintzatzen ez duen materiala. Horregatik, material natural sinpleenak dira joko librea ondoen estimulatzeko duten objektuak. Hala nola, harriak, harea, haziak, ura, zuhaitzak, adarrak, eta abar.

Aurreko ideiarekin batera, haurrak bere sormena gara dezan, zentzumenak aktibatzen dituzten materialak erabiltzen dira. Hortaz, teknologia berrien eraginpean jarri aurretik, giza gorputzaren erritmo naturalak markatzen duen «barne-erlojua» garatzea sustatzen da (Federación Internacional de Asociaciones Médicas Antroposóficas, 2014). Garrantzitsuena da gauza gehiegi ez ematea, batez ere "amaitutako" objektuak ez eskaintzea (Carlgren, 1989).

Waldorf lorategiak etxearen jarraipena dira; horregatik, haurrentzat etxean dauden bezalako espazioak dituzte. Ez dago elementu askorik (Calgren 1989), eta horiek desegituratu eta egituratu egin behar ditu haurrak, gauza desberdin bihurtzeko. Horren adibide dira oihalak, mozorroak, maindireak eta erabilera anitzekoak direnak, hala nola, beste objektu edo pertsona batzuk arrastatzeko, irudimena garatzeko aukerak ematen dituztenak alegia (Weissman, 2017).

### **2.4.6. Biltzea: Ipuina**

Jolas librea eta hedatze momentuaz gain, biltzeko uneak ere badituzte; esaterako, jolas librea amaitzean jostailuak biltzeari ekiten diote, beste jarduera geldoago bat egiteko. Adibidez, goizaren amaieran ipuina kontatzen da. Hori elikatze elementu bat bezala ulertzen da. Maitagarri ipuinak eskolaurreko (lehen hezkuntza aurreko) irakaskuntzaren oinarria dira, fantasia sustatzen baitute.

Maitagarri ipuinak narrazio laburrak dira, fikziozkoak, non argumentu erraz batekin istorio moral bat kontatzen den. Ipuin mota horiek gizakiaren alderdi ugari erakusten dituzte (Von Kügelgen, 2013c; Steiner, Grahl, Von Heydebrand eta Lenz, 2003).

Ipuin hauek narratzeko, kontalaria ipuinetan kontzienteki sartu behar da eta haien errealitatean sinetsi. Hau da, ipuinak barnean izkututzen dituen egia sakonak sinetsi behar ditu. Beste hitzetan; ipuina berea egin behar du (Badilla, 2016).

0-7 adin tartean, munduaren onurak erakusteak garrantzi handia hartzen du; hots, haurra modu positiboan eta fidagarrian garatzeko, haurrak bere mundua ona dela sentitzea funtsezkoa da. Hori horrela, maitagarri ipuinak ongia gaizkiaren gainetik dagoen baliabide zoragarria da (Tejel, 2018; Von Kügelgen, 2013c).

Lehenengo urteetan bereziki, ahozko hizkuntza zuzena eta egokia eskaintzea garrantzitsua da, haurrari herriko sustraiekin lotura sakona izaten laguntzen diolako. Hau da, hizkuntza herri osoaren bilgarri espirituala da. Era berean, beste herri batzuk ulertzen eta errespetatzen ikasten du (Köning, 2014). Beraz, helduaren hitza oso garrantzitsua da, helduari esker irudikapen mental horiek egin ditzake eta. Hau da, helduon hizkuntza zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta hobeto irudikatuko ditu haurrak helduak kontatutakoak (Steiner, 2013a).

## **3. HELBURUAK**

1. Rudolf Steinerek zehaztutako hezkuntza printzipioak ulertzea eta Waldorf eskolako oinarri metodologiko-filosofikoak ezagutzea.
2. Eredu pedagogiko horrek hezkuntzari eta haur hezkuntzako irakaslearen funtzioari egiten dizkion ekarpenak aztertzea.
3. Espiritualtasunak hezkuntzan izan dezakeen garrantzia arakatzea.
4. Ikerketa kualitatibora eta hezitailera hurbiltzea.
5. Txosten zientifikoaren eraikuntzaren prozesua, egitura eta edukiak barneratzea.

## **4. METODOA**

### **4.1. Ikerketaren diseinua**

Ikerketa honek hezkuntzaren behar eta ezaugarriei erantzuteko ikerketa-helburuak zehaztu eta metodo kualitatiboak erabiltzen ditu. Alegia, ikerketa-kualitatiboaren bidez, hezkuntza-testuinguru konplexuan bizitza behatu, jaso eta interpretatzen du (Flick, 2014).

Hezkuntza komunitate batean parte hartuz ematen den kultura-prozesua da. Beraz, garrantzitsua da errealitatea ulertzea, bizipenak, esperientziak eta pertzepzioak kontuan hartuta (Barba-Martín, Gómez-González, eta González-Calvo, 2018). Ezinbestekoa da ikerketaren subjektibotasuna azpimarratzea. Ikerketa kualitatiboan, ikertzaileak, ikuspegi subjektibotik, giza ekintza, bizipen, esperientzia eta sentimendu guztiak ulertu eta interpretatu ditu. Alde horretatik, norberaren esperientzietatik abiatuta ikertu da. Errealitatea modu dibergentean ulertzeko, ikertzaileak errealitatea pertsonen esanahien, pertzepzioen eta ekintzen bidez ulertu eta interpretatu du. Horrela, ikerketaren xedearekin bat egiten dute, koherentzia lortuz. Alegia, teoriaren eta praktikarekiko harremanaren bidez eraikitzen da ezagutza (Álvarez Álvarez, 2011).

Modu horretan, informazio gehiena irakasle batekin egindako elkarrizketa sakon batetik lortu da. Egituratu gabeko elkarrizketak bat-batekotasuna sustatu du, horrela, berdinen arteko elkarrizketa edo hierarkikoa ez den elkarrizketa egin da (Tresserras, 2017; Piza, Amaiquema, eta Beltrán, 2019). Elkarrizketaren dinamikak bi interlokutoreei interesatzen zaizkien gaiak sortzen lagundu die, eta gertaera ikusezinak ezagutu dira. Elkarrizketa mota horretan, ikertzaileak ikusten ez diren eta behatzen ez diren prozesuak jaso ditu. Horretarako, ikertzailearen lana ez da soilik galdetzea izan, baizik eta zer galdera egin eta nola egin jakitea (Díaz-Bravo et al., 2013; Orte, Ballester eta Oliver, 2003).

Beste alde batetik, behaketa parte-hartzailearen bidez informazioa errealitatetik eskuratu da (Díaz, 2011). Horrela, ikertzailearentzat arrotza edo ezezaguna zen hori bere kulturaren parte izatera pasatu da; berriro behatutako errealitatea berreraikiz eta aztertuz (Contreras, 1998). Ikertzaileak, bere esperientziaren bidez, norberaren ezagutzara ere iritsi da, gogoeta-ariketa bat eginez.

Aipatu diren ikerketa-lanez gain, Gradu- amaierako lan hau egiteko beste zenbait urrats eman behar izan dira. Lehenik eta behin, ikertzaileak Waldorf pedagogiara hurbilketa egin du. Prozesu horretan, Rudolf Steiner-ek deskribatzen dituen hezkuntza-printzipioak ikuspegi espiritualetik ulertzea halabeharrezkoa izan da. Horretarako, Waldorf Prestakuntza egitea eta bi urtetako epea behar izan da lana burutzeko: antroposofiaren kontzeptu teorikoak barneratzeko, ezagutza esperimendatzeko, eta sakontasunean barneratzeko.

### **4.2. Teknikak**

Teknikak, ikerketa-metodoarekin zerikusia duten datuak biltzeko baliabide eta prozedura zehatzak dira (Gomes eta Campoy, 2009); ikerketa honetan, ikerketa kualitatiboko teknikak erabili dira.



Ikerketa lan honetan erabili diren teknikak, elkarrizketa sakona eta behaketa partehartzailea dira. Bi teknika hauetatik, elkarrizketa sakona ardatza da informazioa jasotzeko.

Behaketa partehartzailea, Haur Hezkuntzako Graduko III. Practicumean, Waldorf Eskolako Lorategi batean, egin da. Behaketa egin ahala, jasotako informazioa ez da foku zehatz batean zentratu, baizik eta datu ez-egituratuak jaso dira behatzailearen landa oharraz baliatuz (Díaz, 2011; Woods, 1987). Behaketa partehartzailean, datuak biltzeko tresnak landa-koadernoak eta argazki-makina izan dira. Horrez gain, argazkiak atera ziren, baina ezin ziren lan honetan txertatu 3/2018 Lege Organikoak agintzen duenagatik (Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales).

Eskuratutako informazioa Waldorf eskola batean jasotakoa denez, ikerketa-helburuak betetzeko, testuinguru honetatik kanpo ateratzea erabaki zen, Gasteizko Haur Eskola batera hurbilduz. Hor haur hezkuntzan ibilbide luzea, ezagutza eta prestakuntza anitza duen hezitzaile batekin harremanetan jartzea erabaki zen. Profesional horren aukeraketa bi irizpideen arabera hartu da: bat, Waldorf pedagogiaren ezagutza sakona izatea; eta bi, Haur Hezkuntzan irakasle erreferente bat izatea. Elkarrizketa audio formatuan grabatu da, gero hitzez hitz transkribatzeko. Bere oinarrizko hizkuntza (gaztelania) errespetatu eta ondoren, euskarara itzuli da (ikus Eranskinak).

Azkenik, informazio erabilgarriena bildu, eta ordenatu, aztertu eta ondorioak ebatzi dira.

#### **4.3. Informazioa aztertzekeo prozedura**

Ikerketa honen emaitzen atala burutzeko, marko teorikoan jasotako edukiak, haur hezkuntzako hezitzaileari egindako elkarrizketaren informazioa eta Waldorf eskolako lorategian egindako behaketa partehartzailea eta aztertu dira.

Ahotsak antolatu ondoren, emaitzak jaso dira. Horretarako, edukiak irakurri dira, esparru teorikoan bildutako bibliografiaren arabera edukiak triangelatzekeo (de Tezanos, 1998). Azterketan, triangelatzearen bidez, aipatu bi testuinguruetakoko kongruentziak eta inkongruentziak, antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatu dira. Ondoren, oinarri teorikoak kontuan hartuta, sistema kategorial bat sortu da, eta kategoriak eta azpikategoriak gaiaren konplexutasunaren arabera eraiki dira (Urbano, 2016). Hala ere, GRAL-aren denbora eta espazioaren mugak direla eta, azalpen zehatzagoak ematen dituzten kategoriak aukeratu dira, esparru teorikoan jasotakoaren edukiak argitzen dituztelako eta ikerketa lanaren helburuei hobeto erantzuten dietelako.

Bildutako datuak kategorizazio sistemaren bidez aztertu ondoren, datuen interpretazioa egin da, kontzeptu zehatzak ikuspegi teoriko-praktikotik ulertzeko eta kategorien eta marko teorikoaren argumentazioaren arteko koherentzia lortzeko (Flick, 2014).

Horrela, ondorengo kategorien arabera aztertu da jasotako informazio guztia:

## 1. Taula

Analisi-tresna: kategoria-sistema

Kategoria	Azpikategoria	Ahots kopurua	
Hezkuntza holistikoa	-	17	
Lehenengo zazpi-urtekoa	-	16	
Lorezainaren funtzioa (41 <sup>2</sup> )	Imitazioa	23	119
	Erritmoa	14	
	Edertasuna: kutxu artistikoa	14	
	Hedatzea: arnas botatzea	8	
	Materiala	13	
	Biltzea: arnas hartu	6	
		152	

Sistema kategorialean oinarrituta informazio baliagarriaren narrazio koherentea eraiki da, eta ondoren aurkezten den ikerlanaren helburuei erantzuteko emaitzen txostena idatzi da.

### 4.4. Ikerketaren testuingurua eta partehartzaileak

Haur Hezkuntzako Gradu Amaierako Lanaren testuinguruan kokatzen den ikerketa lan honetan ikertzailea partehartzailea da aldi berean. Hori dela eta, ikertzailearen "nia" lanean ari dela argitzea dago. Hala ere, kontrol zorrotza egin da, bai eta haren emaitzetan duen eragina zaindu da ere, hau da, ikertzailearen balioek datu-bilketan eragina izan dezaketela kontuan hartu da (Tresserras, 2017).

Ikertzaileak behatu duen testuingurua Waldorf eskola bat da, hiritik gertu herri txiki batean kokatuta dagoena. Eskola horrek baliabide ugari ditu eta 2.751 metro karratu. Lerro bakarreko eskola da eta D.B.H. mailaraino iristen den hezkuntza-eskaintza du. Haur Hezkuntzako etapan edo Lorategian (Waldorf pedagogian esaten den bezala) adin nahasketa dago: 2 eta 6 urte bitarteko 20 haur hartzen ditu: 2 urteko 2 haur; 3 urteko 3 haur; 4 urteko 7 haur; 5 urteko 7 haur; eta 6 urteko haur 1 hain zuzen ere.

Bestalde, bere ibilbide luzeagatik, lanaren ikerketa gaiaren ezagutzagatik eta Haur Hezkuntzan erreferente izateagatik aukeratu da elkarrizketatutako pertsona, ustez, ikerketa-lan honen helburuei erantzuten lagunduko duelakoan, hain zuzen, Waldorf pedagogiak hezkuntzari egiten dizkion ekarpenak aztertzen. Aukeratu den Haur-hezkuntzako profesionala, ofiziozko eta ibilbide luzeko

<sup>2</sup> 41 ahots azpikategiatik kanpo gelditu dira. Lorezainaren Funtzio kategoria nagusiari dagozkie.

hezitzailea da, 39 urteko ibilbidea duena hain zuzen. Waldorf pedagogiaren prestakuntza jasotzeaz gain, Aucouturierren praktika psikomotorrean trebatua da, eta Emmi Picklerren ideien eta egiteko moduaren jarraitzailea ere bai. Bere praktika hezitzailean urteak daramatza ezagutza hau gauzatzen eta irakasten praktiketako irakaslegai, guraso, nahiz haurrekin. Gaur egun, erreferente pedagogiko bilakatu den Gasteizko Haurreskola batean lan egiten du.

## 5. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Hurrengo lerroetan, behaketa partehartzailean (B) eta elkarrizketa sakonean (ELK) triangelatutako ahotsen emaitzen txostena aurkezten da.

Elkarrizketan eta behaketan lortutako informazioaren bidez, hiru atal jaso dira. Lehenak pedagogia horren izaera holistikoaren zergatia deskribatu eta azaltzea du. Bigarren atalean, zehazki, borondatearen bidez ematen diren haurraren garapen fisikoak eta ohiturek duten garrantzia azaltzen da. Azkenik, hezitzaileak lehen haurtzarotik duen eraginaz eta funtzioaz mintzatzen da.

Elkarrizketan 152 ahots jaso dira, eta horietatik 119 Lorezainaren Funtzioa kategoriari dagozkio. Hau da, ahotsen %78 Lorezainaren Funtzioari dagozkio. Hezkuntza holistiko kategoriari, 17 ahots dagozkio, eta Lehenengo zazpi-urteko kategoriari 16 ahots; hau da, %11 eta %10 hurrenez hurren.

Kategorien irudikapenaren proportzio horrek agerian uzten du Lorezainaren funtzio-kategoria oso garrantzitsua dela haur hezkuntzan, eta hori dela gela-bizitza antolatzeko ardatz nagusia.

### 5.1. Hezkuntza holistikoa

Aztertutako informazioaren arabera, umeari hezkuntza holistikoa eskaintzeko, intelektuala eta emozionala den hezkuntzatik haratago joatea beharrezkoa da. Garapen holistiko hori hezkuntza espiritualarekin lortzen da, batez ere, irakasle beraren barne-bizipen espiritualaren bidez; hau da, ezinbestekoa da maisuak oreka izatea pentsatzeko eta egiteko sentimenduen artean; horretarako, irakasleak berak barnean izan behar du intentzio espiritual hori.

[...] eta hori guztia barne-garapen osoarekin hain lotuta dagoenez, zuk bizitzen baduzu, esan nahi dut, zuk eramatea; zuk ez duzu ez san martin ez horren ezer izendatu behar, hau da, ez duzu zerutasunaz hitz egin behar... eta hori da, ez?" (ELK.15. Ahotsa).

"Alderdi humanoa ezta? Batzuetan hain ahaztuta dagoen giza alderdi hori, ezta? beste esperientzia batzuetan, ezta?" (ELK. 21. Ahotsa).

Elkarrizketatuak diotenaren ondorioz, norberak munduan bere toki *Karmikoa* duela esan daiteke. Horregatik, haren inguruan topaketa horiek helburu garrantzitsu batekin gertatzen dira. Behaketa-lanean ere ideia bera jasotzen da; irakasleak ikasleak eskolara iritsi baino lehen biltzen dira. Hau da, gizakiaren garapena horrela gertatzen dela ulertzen da.

"[...] eta ordena hori ez? benetan horrelakoak garelako, eta gero berriz bueltatzen garelako.." (ELK. 29. Ahotsa).

“[...] hemen gaude, nahi dugulako [...] bizitzak elkartu gaitu [...] eta nola ospatzen dugun hori ezta?” ( ELK. 27. ).

Behatutako eskolan, irakasleek egunero ume bakoitzaren toki *karmikoaz* meditatzen dute. Meditazio horri esker, irakasleak elkartu daitezke, eta, nolabait, irakasleen komunitaterako helburu komun horretan laguntzen du, baina, batez ere, ikasle bakoitzak era desberdinetan hezteko beharra dagoela gogorarazteko inportantea da.

“Meditazioaren mantra: “haurrak, mundura etortzen denean, zerbait berria ekartzen du, eta hezitzailearen zeregina da oztopoak ezabatzea; oztopo fisiko eta psikikoak, haurra bizitza askatasun osoz sar dadin. Egun on” (B).

“Hori sakonetik ulertua, eta denok garen alderdi hori deskubritzea, alderdi hori, hurrekin lan egiten duzunean, horrela da, alderdi hori hor dagoela konturatzea, hori haurrentzat berezkoa da ( ELK. 26. Ahotsa)

“ [...] indibidualitateak eta izaki desberdinak gara, baina bada zerbait hemen egin behar duguna ezta?” ( ELK. 28. Ahotsa).

Horrez gain, hezitzaileak barrurantz begiratu behar du eta maila guztietan prestatuta egon. Irakasleak ohiko prestakuntzatik haratago joan behar du, eta ezinbestekoa du maila psikiko eta espiritualean etengabeko errebisio lana egitea.

“Beno, eskolara sartzen zarenean, eskolako eraikinera, beti esaten zuten atalasean, gelditzearena, ezta? [...] nire lana egiten hasteko sartzen naiz, eta nahi dudalako sartzen naiz ( ELK. 72. Ahotsa).

“Alderdi hori landu egin behar da, esan nahi dut irakasleak bere burua landu behar duela. Irakasleak bere burua prestatu behar du. Eta hori oso sentitu nuen” ( ELK. 64. Ahotsa).

Elkarrizketatuak esan duena aintzat hartuta, ondorioztatu daiteke hezitzaileak giza hezkuntzaren oinarriak aurkitzen dituela, maila guztietan nork bere burua landuz, nork bere burua prestatuz, eta, bereziki, maila espiritualean. Elkarrizketatuak hiru aipatzen ditu: egia, edertasuna eta ontasuna. Hau da, haur-hezkuntzan, garrantzitsuena ez da bereziki zer dakien irakasleak, baizik eta xumetasunetik, irakaslea nor den, hots, zintzoa, benetakoa eta edertasuna transmititzen duen pertsona izatea.

“Baldin eta badituzu, bi, berrehun edo formazio bat ere ez. Hau da, badagoela jendea ere formaziorik gabe hezitzaile zoragarria dena” ( ELK. 76. Ahotsa).

“Nik uste dut hortik aurkitzen duzula hori, ontasuna, edertasuna, eta egia, [...], egiaz mintzatzen zarenean, ezta? Sakontasunetik haiekin zaude. Kantatzen duzunean .... ba... abesti bat egiten badiezu, korro bat edo... gauzak dira sinpleak gero... ez?” ( ELK. 23. Ahotsa).

“Alderdirik naturalena, eta garenaren alderik benetakoena. e... gara ontasuna, edertasuna gara, ez? Egia gara, eta beno ze garrantzia ematen zaion horri, esan nahi dut, nola prestatzen duzun dena haien aurrean. Baina baita ere nola jartzen zaren zu, benetako edertasunetik zintzoenetatik, hau da, egiazkoa denetik. ” ( ELK. 116. Ahotsa).

Modu horretan, egiazkotasun horren bidez, irakasleak hezkuntza-koherentzia aurki dezake, fundamentalismoetan erori gabe. Irakaslearen ibilbidea edozein dela ere, irakasleak egiten ari den horretan sinestuta lan egin dezake.

“Hor jarraituko dut, nagoen tokian jarraitu nahi baitut. Eta gero, prestakuntzak egiten jarraitzen duzu, eta erabakia hartu ahal izateko, hau da formakuntzekin ni noranahi joan ahal izatea. baina niretzat erabakia ez zen hori izan. [...] Waldorf maistra izatera gonbidatu ninduten, baina... ez, ez, ez, esan nuen [...] ez da hobe Waldorf maisuez eta Waldorf familiez inguratutako Waldorf eskola batean lan egitea, ezta? Eta beno, lehenik eta behin, ideal hori ez da existitzen” ( ELK. 41. Ahotsa).

Hezitzaileak eduki behar dituen aipatutako oinarri horiez gain, maitasunak ere garrantzi handia du hezkuntzan. Elkarrizketatuak lana maitatzeaz eta *agape* maitasun-zentzuan maitatzeaz hitz egiten du; maitasun hori maitasun guztietatik handiena da, besteak gurtzen dituelako, umearen izaera gurtzen duelako, hau da, errespetuz tratatu behar da haurra, izaki espiritual gisa.

“Haiek sentitzen ez badute, pertsona heldu batek zaintzen dituela sentitzen ez badute,... helduak benetan zaindu nahi dituela [...]” ( ELK. 53. Ahotsa).

“Baina zeregina, ez? Zeregin horrek, nire ustez, zer esaten duen, ba horrek... maitasuna inguratzen diola, egiten ari zaren hori egiteko gogoa [...]” ( ELK. 68. Ahotsa).

## 5.2. Lehenengo zazpi-urtekoa

Lehenengo zazpi-urtekoan gorputz fisikoaren zainketa nahitaezkoa da garai honetan garatzen ari delako. Gorputz fisikoaren zainketa osasuntsuekin erabat lotuta dago. Esate baterako, elikadura Waldorf eskolan asko zaintzen da, izan ere, asteko zazpi egun bakoitzeko zereal desberdin bat ematen zaio hamaiketakorako; elikadura orekatuaren ohiturak sustatzeaz gain, zereal horiek zerikusia dute esparru teorikoan aipatu ditugun zazpi-urtekoekin.

“Jarduera osasungarriak. Errutinen bidez, jarduera osasungarriak lantzen dira; hots, elikadura, ohitura egokiak, eta arte lanak. Jaten duguna gara, baina ikusten, entzuten, usaintzen, ukitzen duguna ere bagara. Hau da, horrek guztiak elikatzen gaitu.” (B).

“Era berean, hezkuntza plana adin etapetan banatuta dago. Hauek kointziditzen dira gorputz bakoitzaren jaiotzean. Steiner-ek (1996) dio pertsonak ez direla irakasten, baizik eta norberak bere buruari irakasten diola. Hori, bizitzako etapa bakoitzaren kontzientzia egoeraren araberakoa izango da” (B.)

Behaketan, lana eta borondatea, mugimenduarekin erabat lotuta daudela ziurtatu da. Borondateak, esperientzia sentsorialarekin lotura estua du. Gainera, kontzentrazio eta borondatea eskatzen duen lanak, erritmoa beharrezkoa da nekagarria delako. Musika edo eta erritmoarekin egiten denean, umea plazera aurkitzen du, umeek egin behar dituzten ahalegin horiek orekatuz.

“Eskuilak gure kanta dantzatzen ari zirela ere esaten zien, eta abestia amaitzen zen bakoitzean beste lagun bati eskuila aldatzen zitzaion. Ondorioz, haurrek abesten zuten eta abestiaren erritmoan pozik garbitzen zuten” (B).

### 5.3. Lorezainaren funtzioa

Haur Hezkuntzako etapan, bai elkarrizketatuak, bai behaketak agerian uzten dute oso garrantzitsua dela ingurua beroa eta etxekoa izatea, haurri segurtasuna transmititzeko, hau da, familian bezala sentitzea; horretarako, haurrek giro biltzaile eta babeslea jasoko dutela bermatzen da.

“Kolore arrosa nagusia da. Alderdi psiko-afektiboa alde batera utziz, giro fisikoan, goxotasun eta giro abegikorra nabarmentzen den lehenengo gauza da. Horrek, estetika beroa eta etxekoia sortzen du. Horregatik, gortinek, oihalek eta hormek kolore arrosa dute” (B).

“Waldorf eskolan, haurri segurtasuna emateko asmoz, materialak beti berdin antolatuta daude. Egunero dena bere lekuan aurkitzen dute” (B).

Elkarrizketatuaren arabera, aipatu diren zainketa eta maitasun egiazkoak ( *agapeak*) konfiantza eta hurbiltasun sentimendua ematen die haurrei eta familiei.

“Maitasunez inguratzea, egiten ari zaren hori egiteko gogoia erakustea [...]” ( ELK. 68. Ahotsa).

“Haien bizitzetik benetako interesa daukadala nabaritzen dute. Horregatik, niregana hurbiltzen dira eta gauzak kontatu nahi dizkidate” (B).

“Maite dituzu ezta? Hitz egiten genuen maitasunaz. Izan ere, umeak maitatuak sentitzen dira, eta, lehenik, gurasoek maite dituzte. Haien semea maite duzula sentitzen dute aitak eta amak. Hitz egiten genuen maitasunetik horretatik maitatzea” ( ELK. 53. Ahotsa).

Behaketan jasotako datuen arabera, koherentzia egon behar du sentitzearen pentsamenduaren eta hezitzaileak egindakoaren artean. Hala ere, elkarrizketan aipatzen da beste hezitzaile batzuek behatzearen eta norberak beste hezitzaileak behatzearen beharra. Horrela, hiru esparru horietan aurki daiteke koherentzia. Egiten dena ondo sentitzen ez bada eta koherentziatik eginda ez badago, esan daiteke ez dagoela ondo eginda, kontzientziarik ez baitago.

“Dena ondo eginda ez dagoela ikusteko aukera eman dit. Pedagogia bati buruz iritzi desberdinak egon daitezke, baina muturrak inoiz ez dira onak izaten. Batez ere, erlijio gisa eramaten direnean” (B).

“[...] Nik asko ikasi dut behatuz, beste pertsona batzuk behatuz. Nik horregatik beti uzten diet beste pertsonari ni behatzen. Askotan ezin da egin, instituzioa hain instituzionalizatuta dugulako” ( ELK. 85. Ahotsa).

“Gero zuk ere egiten zenuela, esan nahi dut, zuk beste pertsona bat ikusiz zeure burua ere ikusten zenuela” ( ELK. 86. Ahotsa).

Horrela eta elkarrizketaren ahotsak ikusarazten digunez, irakaslearen zereginak hezitzailearen inplikazioa eta esijentzia handia eskatzen du, hots, hezitzaile bakoitzak barneko lan pertsonal handia egin behar du bere eginkizunetan islatzeko.

“Erabateko inplikazioa, osea zure kanpoko denboran zaudenez, inplikatu egin behar duzu; ia bizi-aukera bat da” ( ELK. 40. Ahotsa).

“Jarrera hori eta lanaren alderdia,[...] ikasi beharreko maisu-lanbide hori” ( ELK. 62. Ahotsa)

Elkarrizketatuak dio irakasleak berea egin behar duela, horregatik ezin da Waldorf pedagogia bera azaldu, pedagogia bizia baita eta irakasle bakoitzak eraldatu egiten baitu. Pedagogia era koherentean erabiltzen du, gizakia denaren esentziaz bertatik, alegia, izaki espiritualetik. Irakasleak, nolabait maila espiritualean bere burua landuz, bere burua eta bere esentziaren egiazkotasuna aurkitzen ditu. Horrela, irakasleak hori aurkitzen duenean eguneroko jardunean islatu eta eraldatu egiten du.

“Gertatzen dena da, zuk daramazula alderdi hori. Ni mendira noa eta nartzisoekin nator. eta orain bilatu egingo ditut, badakidalako etxearen atzean badaudela, eskolarako alderdi hori edo meditazio horiek egitea” (ELK. 44. Ahotsa).

### **5.3.1. Imitazioa**

Aurreko puntuan azaldu den bezala, irakasleak maila fisiko, psikiko eta espiritualean lan egin behar du, eta errebisio lana etengabe egin behar du. Elkarrizketatuak agerian uzten duen moduan, hezitzaileak berebiziko garrantzia du haur hezkuntzan, imitatzeko modukoa izan behar duelako. Horregatik, haurrari bere borondate-indarra transmititzen dio egiten duen lanaren bidez. Hau da, haurrek duten imitazio-ahalmenari esker bereganatzen dute ahalmen hori. Horrela, haur hezkuntzan garrantzitsuena ez da bereziki irakasleak zer dakien, baizik eta xumetasunetik irakaslea nor den; zintzoa, benetakoa eta edertasuna transmititzen duen pertsona izatea.

“Bai, imitazioz ikasten dute dena; beraz, helduok imitatzeko modukoak izan behar dugu” (EKL 84. Ahotsa).

“Zu umeen aurrean ondo bazaude haiek ere ondo daude; bai? eta hori joaten zara lantzen. Bueno lantzen, ba... egiten” (EKL 89. Ahotsa).

Imitazio indar horiek adin nahasketa gertatzen denean ikusten da elkarrizketan zein Waldorf eskolako behaketan; beraz, onuragarria da umeentzat.

“Adin- nahasketari diot baietz.... Nik bai ikusten dut haur helduengandik ikasten dutela... txikitxoak zainduz...bai” ( EKL 93. Ahotsa).

“Ikusi dudanaren ondorioz, adin nahasketa onuragarria da, txikiek nagusiengandik ikasteko aukera ematen baitu, eta alderantziz. Izan ere, enpatia garatzen laguntzen du. Gizartean bezala, helduok izaten ditugun harremanak ez dira beti gure adinekoekin izaten, baizik eta beste adineko pertsonekin harremanetan jartzen gara” (B).

### **5.3.2. Erritmoa**

Erritmoa, elkarrizketan etengabe errepikatzen den ideia da. Haurrak munduarekin bat egiten du, eta naturaren arnasketa hori argi islatzen dela urtarotetan eta gizakiengan dio elkarrizketatuak.

“Niretzat arnasketa erritmoa da, aipatzen genuen arnasketa erritmo hori, ezta? Negua, uda, udazkena..., urtarotako erritmoa da, non ere arnasten dugun.” ( ELK. 109. Ahotsa).

Waldorf eskolan egindako behaketan ere, ideia hori jasotzen da, hurrengo ebidentziekin.

“Normalean, argi artifiziale ez da erabiltzen, urtarokotasunaren argiaren kontzientzia hartzeko” (B).

Eskolan egindako behaketan mahai bat dago, non irakasleak jaso dituen urtaroko elementuak agertzen diren. Ikus daitekeenez, mahai horretan gizakiak berak osatzen dituen elementuak ere agertzen dira: Izaera fisikoa irudikatzen duten harriak, natura eterikoa irudikatzen duten landareak, irakasleak egindako animalien irudiak, animalia- edo animalia-izaera irudikatzen dutenak, eta natura espirituala irudikatzen duen kandela baten argia.

“Aulkien aurrean urtaro-mahai bat dago. Hori egunero aldatzen da eta urtaroaren arabera elementu berriak agertzen dira, eta beste batzuk, berriz, desagertzen joaten dira” (B).

Arnasketa- erritmo logikoa gertatzen dela erakusten du elkarrizketatuak, haurra erritmoetan bizi da eta. Erritmo horiek haurrak ohitura gisa inprimatzen dituen erritmoak dira. Aurreko atalean esan den bezala, naturaren erritmoak garapena gidatzen du. Erritmo horretan ere, arnasketa gertatzen da. Arnasketa hori egiten da naturaren arnasketaren, haurren arnasketaren, irakaslearen arnasketaren eta taldeko arnasketaren bidez. Haurra naturarekin bat da, munduarekin bat, eta banakako arnasketa eta arnasketa bateratua errespetatzea beharrezkoa da eta erritmo harmonikoa lortzen da horrela.

“Haiek esaten duten arnasketa modu bat dago, ezta?. Hau da, umeak ez itotzea. Izan ere, ez da gauza bera ume batekin etxean egotea edo adin bereko talde batekin egotea. erritmo bat egon behar da. Bagoaz. Bakoitza badoa, baina elkarrekin goaz” ( ELK. 101. Ahotsa).

Elkarrizketatuak azaldu bezala, besteen izaerari errespetu handia izan behar zaio. Hezitzaileak bizitzan zehar topatzen dituen gizaki guztiak diren bezalakoak onartu eta errespetatu behar ditu. Hortaz, hezitzaileek haurrei eta familiei errespetu handia izan behar diete. Haurrak errespetu handia izan behar zaien izakiak dira, eta nahitaezkoa da norberaren erritmoak, trebetasunak eta oztopoak barne errespetatzea.

Errespetu-ariketa hori egiteko, elkarrizketatuak behin eta berriz errepikatzen du barne-lanaren ideia hori, baita behaketak ere, hau da, gogoeta-lanaren ideia beharrezkoa da. Hots, irakasleari zer eta zergatik egiten zaion desatsegin edo irakasleak haurrak zaintzen dituen beharrak asetzeko edo bere beharreatatik jokatzeko duen.

“Inoiz ez nuen hori lehenago egin, kontzientzia-ariketa hori; zerbaitek haserretzen ninduenean kanpora begiratu beharrean, pentsamendu hori nirea dela eta haurrak kaltetzeko arriskua dagoela; niretzat erronka erraldoia da” (B).

“Niretzat hauxe zen gogoeta-ariketa hori: sartu nahi dut, sartu nahi dut, nahi dudan lekuan sartu nahi dut; eta nik eman dezakedana emango dut.. Nik hemendik ere jasoko dut, baina ni gogoz nator” ( ELK. 73. Ahotsa).

### **5.3.3. Edertasuna, kutxu artistikoa**

Arteari dagokionez, elkarrizketan eta behaketa-lanean desberdintasun batzuk ikusten dira. Elkarrizketatuak adierazten du haurrak alderdi artistikoan hezteko beharrezkoa dela, baina berriz ere errepikatzen du erritmo horiek errespetatu egin behar direla. Adin etapa honetan, lehenengo



hautzarroan (0-3 adin tartean), oraindik tokatzen ez zaiena ez dela aurreratu behar, mugimendua beharrezkoagoa baita etapa horretan.

“Hormetan pintatzen dugu ontzi, ura eta, pintzel batzuekin, ez? Eta beno! Badago! Iritsiko da garaia non akuarelak erabiliko ditugun!” ( ELK. 124. Ahotsa)

Hala ere, Waldorf Eskolan, adin-tartea nagusiagoa da, 3 eta 6 urte bitarteko haurrak daude eta. Haur helduago horiek eskulan txiki konplexuagoak eta egokiagoak egiteko prestatuta daude; 1. Irudian, ikus daiteke lan txiki horien adibidea.

## 1. Irudia

### *Ipotxak*



“Adibidez, ipoxak jostea, edo gela apaintzen duten farolak egitea, edo etxera eramatea” (B).

### 5.3.4. Hedatzea: jolas librea

Hedatzeaz ari garela, elkarrizketatuaren iritziz, naturala den guztiaren bidez zentzumenak esperimentatu eta garatzen dira. Haur hezkuntzan hiru zentzumen nabarmentzen ditu. Bizi-zentzua, ukimen zentzua ( ukimena eta zuhurtzia edo tentua bezala ulertua) eta mugimenduaren zentzumena. Jolas librean umeeek hiru zentzumen horiek erabiltzen dituzte; ukimena, bizi-zentzua eta mugimendua.

“Mundua eta naturaren legeak ezagutzeko aukera ematen dio. Jarduera ludikoan, aurkikuntzak egitean, objektuekin maneiatzen eta esperimentatzen [...] umearen ezagutzaren aurreko harridura zainduz” (B).

“Nire ustez, eskolako alderdirik interesgarriena patioan egoten den jolas librea da, ikasgelan gauzatzen dena baino jolas libreagoa baita” (B).

Bizi-zentzuan, naturak garrantzi handia hartzen du. Naturaren bitartez hezten da gizakia, hau da, gizakiok garen neurrian. Horregatik, elkarrizketatuak dio naturan gertatzen denari arreta jartzeak gakoak ematen dituela hautzaroko lorategian bizitza garatzeko.

“Ba niretzat beti oso, oso inportantea da naturarekiko kontaktua, aire librean, beno, nola garatzen garen inguru horretan eta, bueno, ba pedagogia honetan ere oso-oso landuta dute ..., niretzat berebiziko garrantzia du, *vitala* da” ( ELK. 73. Ahotsa).

Naturarekiko harreman hori adin guztietan egin daiteke, hau da, ezinbestekoa da egunero egitea urtaroen aldaketa sentitzeko, egiten duen eguraldia eta haurren adina kontuan hartu gabe.

“[...] egunero ateratzen gara. Haur txikiekin ateratzen gara, sehasketan lo egiten dutenekin ateratzen gara [...] asko baloratzen da aire librearen kontaktua izatea, hau da, kanpoan dagoenarekiko kontaktua, hau da, oinarrizkoa da. Oinarrizkoa da bizitzarako” ( ELK.139. Ahotsa).

Elkarrizketatuak mugimenduaren zentzua etapa honetako zentzumenik garrantzitsuenetariko bat dela dio. Jolas librean askatasunez mugimendua garatu daiteke; hala ere, askatasun hori askotan anarkiarekin nahasten da, eta mugak jartzea ere garrantzitsua da.

“Adin hauetan, mugimendu-zentzumenarekin, ezta? Oinarrizkoa dena.[...] Jolas libre hori haien lana da. Bizitza da haientzat hori ez? Hori ere. Niretzat izan zen gakoa. Beti jolas librearekin. Hau da, hori inportanteena da. Nork antolatzen ote du horrela eguna? Baina mugak ere bai. Mugak ere, ez delako eskola librea ulertzen dugun moduan. Eskola libreaz hitz egiten dugunean..., kontuz” ( ELK. 127. Ahotsa).

“Gelan, mugimendu zabalena ahalbidetzen dituen espazio handi bat dago. Gune hori, arrosa argi koloreko alfombra batez mugatuta dago” “Dauden testuinguru fisikoak oso desberdinak direla esan beharra dago; ingurune pribilegiatuan dagoela esan genezake, ikasleek naturarekin kontaktu zuzena eduki ahal dutelako”[...] (B).

Elkarrizketan mugimenduaren zentzuaz hitz egiten da. Izan ere, ez da soilik fisikoa; barnekoa ere bada, eta kanpo-mugimendua zaintzen den modu berean barnekoa ere zaindu behar du hezitzaileak.

“Helduak keinu bakoitzean izan behar duen bezala. Gauzak presaka ez egitea, espazioan mugitzen zaren bezala. Gauzak eskuetatik ez kentzea. Formakuntzan ere oinarrizkoa da... gauzak eskatzea...” ( ELK. 90. Ahotsa).

Ukimenaren zentzua maila guztietan dago; ukimena naturala den oro, naturarekin eta ukimena (*taktua*) ere, zuhurtzia gaztelaniaren zentzu figuratuan ulertua.

“Lorezainak urrezko tanta botatzen du, eta horrek olio naturalak oinetan ukimen zentzumena garatzea ahalbidetzen du” (B).

Waldorf eskolan egindako behaketan ez da inoiz asmo didaktikorik ikusten. Elkarrizketan ere ez da aipatzen. Lan intelektuala bizitzako lehen etapa honi ez dagokiola ulertzen da.

“Haur Hezkuntzan, Waldorf eskoletako antolamenduak ez du helburu didaktikorik bilatu behar, baizik eta etxeko giroa, lana eta borondatea sortzea da lehenengo helburua” (B.)

### **5.3.5. Materialak: naturala den guzti hori**

Elkarrizketan naturaltasuna garrantzitsua dela nabarmendu da. Hau da, oztopo den guztia saihestea. Adibidez, musikan giza ahotsa erabiltzea, beste elementu artifizial batzuen ordean. Bestalde, behatutako eskolan ere, hori nabaria da. Elementu naturalen bidez umeek behar dutena sortzen dute. Dena den, eskolan materialak bakarrik filosofia honekin bat egin behar du. Aitzitik, elkarrizketatuak malgutasun gehiagorekin jokutzen du.

“Bai, pixkanaka helduarekin mintzatzea: azaltzea: beno..., guk umeek jaten dutenean zergatik erabiltzen dugun kristalezko edalontzi bat” ( ELK. 35. Ahotsa).

“Waldorf eskolako patioak, area ura, makilak egur enborrak, harriak eta naturako elementuak” (B).

“Ezin dira etxeko jostailuak/gauzak ekarri, pedagogiarekin bat egiten ez badute. Izan ere, umeek berokietan ezkututzen dituzte, eta kontrako efektua lortzen du” (B).

“Ez dut abesteko tresnarik erabiltzen, ez kasetarik, ez horrelakorik. Beno, duela urte asko. Lehen nik ere ez nuen jartzen. Bestela kantua edo flauta jotzen dut, eta ez dut askoz gehiago egiten” ( ELK. 143. Ahotsa).

Waldorf eskolan, erabiltzen diren material guztiak naturalak edo eskuz egindakoak dira, baliabide natural ugari izanik, bai ingurunearen aldetik, bai materialen aldetik kalitatezkoak izan behar dira.

“Baliabide natural gehiago dituzte, bai ingurunearen aldetik, bai materialen aldetik kalitateazkoak dira. Naturalak eta ekologikoak gehienbat. Altzarrietan egurra eta zumea dira nagusi”, zenbait eremu ere bereizten dituzte. “Mendi tontorra”, “Ipotxen etxea”, eta haiek “*guaridak*” deitzen dieten beste toki batzuk”. (B).

Elkarrizketan nahiz behaketan naturak urtaroretan eskaintzen digun guztia aurkitzen dela agerian uzten da. Euriarekin, putzuekin, airearekin, elurrarekin jolas daitekeela baieztatzen da. Patioan aurkitu daitezke enborrak, zuhaitzak, ezkutatzeko espazioak, lokatza, hostoak, harriak, makilak, eta hare- toki handi bat. Hau da, kultura prozesu batetik pasatzen den guztia jada ez da naturala; naturaren benetako izaera egituratu gabe dago, egoera puruan.

“Eta alderdi hori [...] kalera bagoaz eta hostoekin jolastera goaz hor daudelako. Ez dugu hostoekin ezer egin behar!” ( ELK. 141. Ahotsa).

“Umeak zuhaitzetara igotzen dira, hosto gabe daude, udazkena dela dakite” (B).

Argi geratzen da zeinen garrantzitsua den egituratu gabeko materialak erabiltzea fantasia garatzeko, soka bakar bat elikagai edo beste objektu bihur daiteke eta.

### **5.3.6. Biltzea: arnas hartu**

Biltzeko unea lasaitasunarekin eta goxotasunarekin harremanetan jartzen dute. Arnas hartzeko momentua da. Eta kontzentrazio gehiago eduki behar dute hurrek. Elkarrizketatuak eta behaketan ditugun landa oharretan ere badago jasota. Bat-bateko korroan, bai zuzenduago korro batean bihotzen arteko elkartzea gertatzen da, non elkarrekin durundatzen dauden.

“Inspirazio-unearekin hasteko, gelara sartu, eta elkarrekin, erritmoa jaitsiz doan abesti bat kantatzen da, ipuinean lasaiago eta harmoniatsuago sartu ahal izateko”. (B).

“Badaude horrelako momentuak, esaten duzula badagoela hor dar-dar egiten duela. Eta esaten duzu ai ama!, hau da! hau da! [...] isiltasuna dagoelako, barre asko dagoelako, elkarrizketa asko dagoelako. Elkarrekin egoteko gogo handia dago” ( ELK. 148. Ahotsa).

“Gabonetan, neguan. Ikastetxe bakoitzean edo bakoitzak nahi bezala, baina naturan ere giro desberdina dago, ezta? Hotzekoa, argiarena, biltzekoa, familia [...] alderdi horiek [...]” ( ELK. 151. Ahotsa)

Ipuina biltzeko beste elementu bat da. Izan ere, garai honetako pentsamenduaren tresna gisa erabiltzen da. Horregatik, hurrekin erabiltzen da, eta zuzeneko kontaktu pertsonalaren bidez, hizkuntza ez infantilizatua, ongi ahoskatua, aberatsa eta gramatikalki zaindua izaten da. Ipuinak

hizkuntzaren edertasuna gordetzen du, goiz bukaeran kontatzen da eta elikadura bezala ulertzen da behatutako eskolan.

“Ipuina goiz bukaeran kontatzen da eta elikadura bezala ulertzen da. Lorazainak astean zehar ipuin bera kontatzen du. Errepikatze horren bidez, umeez disfrutatzen dute badakitelako zer datorren gero. Gainera, ipuinak haien jolasetan sartzen dituzte, eta horrek haien mundu imaginario hori elikatzen du” (B).

Emaitzen atala laburbilduz, adituaren informazioaren bidez, agerian utzi da irakaslearen autoprestakuntzako barne-lanaren garrantzia, lehen etapan duen garrantzia dela-eta, haurrak gizabanako gisa egin behar duena erabat errespetatzeko.

## **6. EZTABAIDAK ETA ONDORIOAK**

Ikerketa txiki honen esparru teorikoan islatutako beste autore batzuek ematen diguten informazioa lortutako emaitzen txostenarekin alderatuz gero, bien artean koherentzia handia dagoela ikusten da. Autoreek gizakiaren dimentsioei buruz hitz egiten digute, eta zehatzago esanda, bizitzaren lehen etapari buruz (0-7). Hauek dira dimentsio fisikoa, bizia, animikoa eta espirituala (Steiner, 2014a). Emaitzen txostenean dimentsio horiek ez dira autoreek bezain markatuak ageri; izan ere, elkarrizketatuak adierazten du dimentsio horiek helduaren bidez garatzen direla haurraren.

Biak, emaitzak eta autoreak ados daude gizakiak helburu garrantzitsu bat duela esatean (Berlin, 1991; Steiner, 2014a). Helburu indibidual eta bakar horren ondorioz, hezkuntzak izaera holistikoa eta dibergentea du (Rawson, 2017).

Hezkuntza holistikoa hori bermatzeko, biek aipatzen dute askatasunaren kontzeptua (Quiroga, 2013; Rawson, 2013). Askatasunaz hitz egiten dutenean, garapenaren erronka, muga eta erritmoekiko errespetuaz hitz egiten dute; hau da, askatasuna, haurren bizi-helburua errespetatuz. Bizi-helburu hori sentimendua, pentsamendua eta borondatea modu orekatuan garatuz lortzen da autoreen arabera (Collado, 2016). Autoreek era orokorrean hitz egiten badute ere, emaitzak hezitzailearen orekan zentratzen dira.

Hezkuntza holistikoa horretan biek ados daude maitasuna hezkuntzaren ardatza izan behar dela Horrekin batera, alderdi intelektualaren aurrerapena behartzei kritika egiten diote gero eta etapa goiztiarretan ematen da eta (Edmunds, 2013; Martinez, 2019; Collado, 2016).

Ikerketa txiki honen emaitzetatik lortutako informazioak agerian uzten du zein garrantzitsua den nolakoa den irakaslea haurren garapenean (Edmunds, 2013; Steiner, 2013b; López, 2018; Kranich, 2013a). Aurreko atalean bildutako emaitzen bidez, ondorioztatzen da hezitzaileak maila fisikoan, psikikoan eta espiritualean prestatu behar duela bere burua, eta norberaren lanaren eta autokontzientziaren bidez egin behar duela lana (Berlin 1991; Rawson, 2007).

Nahiz eta hezitzailearen nortasuna edo izaera ikasgeletan landu ohi den alderdietako bat ez izan, lan honetan aurkezten ditugun ebidentziek zein bibliografiak erakusten dute ezinbestekoa dela irakasleek beren zereginari buruzko gogoeta egitea eta beren garapen pertsonalari buruz eta beren

buruarekin duten koherentziari buruzko gogoeta egitea (Lopez, 2018). Lan honetan pentsatu, egin eta sentitzearen arteko koherentziaz hitz egiten da (Quiroga eta Igelmo, 2013; Carlgren, 1989; Berlín, 1992).

Irakaslearen funtzioan fokoa jartzea eta garrantzia ematea nahitaezkoa da (Kranick, 2013a). Bai emaitzek, bai autoreek diote hezitzailea imitatzeke moduko pertsona izan behar dela (Auer, 2007; Jaffke, 2013; Von Grunelius, 2013; Clouder eta Rawson, 2009).

Irakaslearen funtzietako bat, erritmoak, zaintzea da (Seydel, 2012). Bai marko teorikoan, bai emaitzetan agerian utzi da haurrari errespetua izatea ezinbestekoa dela, bere izaera eta erritmoa barne (Seydel, 2012). Marko Teorikoan zentzumen zehatz batzuen inguruan hitz egiten ez bada ere, zentzumenen garrantzia aipatzen da. Aitzitik baheketan eta elkarrizketan zehazten dute. Hau da, emaitzek dioten bezala, haurrarekiko errespetu sakona egon dadin, helduak ulertu behar ditu 0tik 7ra bitarteko haurra garatzeko nagusi diren zentzumenak: mugimendu-zentzumena, ukimen-zentzumena, eta bizi-zentzumena. Hori dela eta, naturan izaten den jolas libreak berebiziko garrantzia du; izan ere, bertan gertatzen dira haurrak askatasunez egin behar dituen mugimenduak; naturala denaren, egituratu gabea denaren edo kultura-prozesu batetik pasatu ez denaren bidez. Horregatik, haur hezkuntzaren etapa honetan erabili beharreko materialak naturalak izan behar dira (Badilla, 2016; López, 2018; Carbonell, 2015; Weissman, 2017).

Erritmo natural hori lortzeko gelaren bizitza naturaren elementuaz baliatu behar da hezitzailea. Adibidez, urtaroaren bizipenaren bidez, haurrak bizi-zentzua garatzen du, material naturalen bidez ukimenaren zentzua, eta jolas askearen bidez mugimenduaren zentzua (Steiner, 2013b).

Horrez gain, giza harreman guztietan arnasketa indibiduala eta kolektiboa dago, giza harremanen funtzionamenduan eragina duena. Banakako eta taldeko erritmoak errespetatzea ez da lan erraza. Izan ere, helduak bere erritmoa ezagutzea eskatzen du, bestearen erritmoa ulertzeko (Steiner 2013b; Baldissin, 2019; Badilla, 2016; Schöttner, 2013).

Marko teorikoan autore desberdinek ipuinaren balioa azpimarratzen dute; honen bitartez, haurrari gizakiaren alderdiak erakusten zaizkio eta adin etapa horretako ezaugarriak errespetatzen dira aldi berean (Von Kügelgen, 2013c; Steiner, Grahl, Von Heydebrand eta Lenz, 2003). Emaitzetan, etapa horretan haurra barruan kanpoan baino gehiago bizi denez, bilketa-unea edertasunaren, ontasunaren eta egiaren bidez egin behar dela diote. Hori da, azken batean, hezitzaile bakoitzak bere baitan landu behar duena; bere barnean bizi den edertasuna, ontasuna eta egia aurkitu behar ditu. Beraz, ondorioztatu daiteke ipuinen kontaketa hurrengan oso egokia den elementu bat dela. Ipuinak kontatzean, irakasleak barnean gizakiaren egia, edertasuna eta ontasuna bizi behar du umeari transmititzeko.

Bestalde, nahiz eta marko teorikoan ez aipatu, lan honetan frogatuta dago bestelako hezkuntza mota bat posible dela eta edozein hezkuntza esparrutara eraman daitekeela. Elkarrizketa dugun aditua haur-eskola publiko batean izandako esperientziak agerian uzten duen bezala.

Ikerketa-lana bera ere prestakuntza-esperientzia eta hazkuntza-esperientzia izan da maila askotan, beste pertsona batzuekin harremanetan egotea aberastu nauelako. Izan ere, topagune horietan, zurekin dauden pertsonak zuregan eta zurean inprimatzen dira. Bide desberdinetatik datozen beste gizaki batzuekin lotzeko bidea ematen du, eta haurrengan aipatu ditugun esparru guztiak ere jokoan jartzen ditu, ikaskuntza-prozesu batean sentitu, pentsatu eta ekintzetara eramaten gaituelako. Horiek arrastoa uzten dute gugan eta guk arrastoa uzten dugu. Horren ondorioz, galderak egiten jarraitzeko bidea ematen digu, lan honetan aipatu ditugun haziak bezala, beste ezagutza berri batzuen oinarriak dira, etorkizunean loratuko direnak (Tresserras, 2017).

## **7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK, ETORKIZUNENKAK**

Lana egiteko topatu dudun zailtasun handienetako bat aztergaiak uste baino askoz eduki gehiago hartzen dituela izan da, non printzipio pedagogiko batzuk soilik ezagutzea ez den nahikoa izan. Zailtasun hori ebazteko, Rudolf Steiner-ek deskribatzen dituen hezkuntza-printzipioak ikuspegi espiritualetik ulertzea halabeharrezkoa izan da. Bakarkako irakurketak egiteaz gain, Waldorf pedagogiaren formakuntza egitea ezinbestekoa izan da antroposofiaren konplexutasunean murgiltzeko. Gainera, Steinerren ideiak eta elkarrizketaren transkribapena itzultzea erronka bat izan da niretzat, hizkuntzaren konplexutasunagatik.

Lan honetan, aldi berean ikertzaile eta partehartzailea izateak erronka ugari ekarri ditu ikertzaile bezala nire lehenengo esperientzia izateagatik, eta ikerkuntzaren diskurtsoaren berezko hizkuntza nireganatu behar izateagatik. Hala ere, Gral-ak dakarren ikaskuntza-prozesu horretan guztian, konfiantza lortu ahal izan dut, eta esango nuke ikerketa-lan xume honek oinarriak eman dizkidala benetan izan nahi dudun irakaslea izateko.

Lana egin aurretik, ardura handia sentitzen nuen haurren aurrean egotean, ez nintzelako imitatzeko eredia sentitzen. Orain, koherentziaren garrantziaz ohartu naiz eta modan dauden metodoak ez aplikatzearen garrantziaz, eta, gainera, metodo horiek, ikasgelan egoteko modu horiek, nirekin durundatu behar dutela ikasi dut. Hau da, hezitzaile gisa egiten dugun guztia edo egin behar duguna ez dagoela ondo, sentitzen ez badugu. Irakaslearen lanaren, sentitzearen eta pentsatzearen arteko koherentzia ezinbestekoa da. Horrekin batera, datorrenari aurre egiteko prest nago, baita nire bizitzako helburua betetzeko aurkitu behar ditudan pertsona horiekin bidean topatzeko ere.

Lan honi amaiera emateko, ondorengo hausnarketa eginez bukatuko dut. Lan zientifikoak asmo intelektual bat izan eta datu enpirikoen bidez ezagutza emateko asmoa badu ere, sarritan adimenarekin zerikusi gutxi duen leku batetik datorren xede batetik sortzen da. Lan orok bihotza, burua eta gorputza behar ditu. Adimenarekin bakarrik ezin da egin; intentzioa eta borondatea kontzientziaz etorri behar dira, lanerako maitasun sakonaren egiaz.

## **8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK**

- Álvarez-Álvarez, C. (2011). *La relación teoría-práctica en la enseñanza y el desarrollo profesional docente. Un estudio de caso en Primaria*. [Doktorego Tesia]. Universidad de Oviedo. Hemen eskuragarri: <https://www.tdx.cat/handle/10803/32139#page=1>
- Auer, E. (2007). Referencia de la mano humana. In Livingston, P. eta Mitchell, D. (ed.), *Inteligencia desarrollada por la voluntad: Artes prácticas en las escuelas Waldorf. Desde el jardín hasta la secundaria* (43-45 orr.). AWSNA. The Association of Waldorf Schools of North America. Hemen eskuragarri: <https://gozartelavida.files.wordpress.com/2016/04/la-inteligencia-desarrollada-por-la-voluntad-waldorf.pdf>
- Badilla, I. (2016). Los cuentos de hadas, una propuesta para la niñez desde la pedagogía Waldorf. *Innovaciones educativas*, (25), 55-64 or. Hemen eskuragarri: <https://revistas.uned.ac.cr/index.php/innovaciones/article/view/1650/1870>
- Baldissin, M. (2019). *Percepciones Humanas- Antroposofía y Neurociencias*. Editorial Rudolf Steiner.
- Barba-Martin, R.A., Gómez- González, a. eta González- Calvo, G. (2018). "Tu enfoque determina tu realidad". Una vida dedicada a unir teoría y práctica en la investigación cualitativa. *Magis, Revista Internacional de Investigación en Educación*, 11(22), 15-32 or. <https://doi.org/10.11144/Javeriana.m11-22.tedr>
- Barnes, H. (2015). *Educación Waldorf... Una introducción*. Hemen eskuragarri: [waldorflibrary.org/books/3/view\\_bl/52/ebooks/38/educacion-waldorf-una-introduccion-ebook](http://waldorflibrary.org/books/3/view_bl/52/ebooks/38/educacion-waldorf-una-introduccion-ebook)
- Berlin, J. (1991). *La educación del Niño: Metodología de la enseñanza*. Editorial Rudolf Steiner.
- Carbonell, J. (2015). *Pedagogías del siglo XXI. Alternativas para la innovación educactiva*. Ediciones Octaedro S.L.
- Carlgrén, F. (1989). *Pedagogía Waldorf. Una educación hacia la libertad. Informes del Movimiento Internacional de las Escuelas Waldorf*. Editorial Rudolf Steiner.
- Collado, J. (2016). Educación Emocional: Retos para alcanzar un desarrollo sostenible. *CIEG*, (26), 27-46 or. Hemen eskuragarri: [https://www.researchgate.net/profile/Javier\\_Collado-Ruano/publication/308906352\\_cieg](https://www.researchgate.net/profile/Javier_Collado-Ruano/publication/308906352_cieg)
- Contreras, F. J. (1998). Tres versiones del relativismo ético-cultural. *Persona y Derecho*, (38), 69 or. Hemen eskuragarri: <https://www.proquest.com/docview/1307106933?pq-origsite=gscholar&fromopenview=true&imgSeq=1>
- Clouder, C. eta Rawson, M. (2009). *Educación Waldorf. Ideas de Rudolf Steiner en la práctica*. Editorial Rudolf Steiner S.A.
- de Saint-Exupéry, A., eta Zubizarreta, P. (2001). *Printze txikia*. Elkarlanean.
- De Tezanos, A. (1998). *Una etnografía de la etnografía*. [Doktorego Tesia] Universidad Pedagógica Nacional Facultad De Educación de Bogotá. Hemen eskuragarri:

<http://repository.pedagogica.edu.co/bitstream/handle/20.500.12209/2621/TE-19646.pdf?sequence=1>

Díaz, San Juan, I. (2011). Clave1303: Método Clínico. La observación. [Apuntes kompilazioa]. Hemen eskuragarri:

[http://up-rid2.up.ac.pa:8080/xmlui/bitstream/handle/123456789/1502/La\\_observacion\\_Lidia\\_Diaz\\_Sanjuan\\_Texto\\_Apoyo\\_Didactico\\_Metodo\\_Clinico\\_3\\_Sem.pdf?sequence=1&isAllowed=y](http://up-rid2.up.ac.pa:8080/xmlui/bitstream/handle/123456789/1502/La_observacion_Lidia_Diaz_Sanjuan_Texto_Apoyo_Didactico_Metodo_Clinico_3_Sem.pdf?sequence=1&isAllowed=y)

Díaz-Bravo, L. Torruco-García, U., Martínez- Hernández, M., Varela-Ruiz, M. (2013). Metodología de la investigación en educación médica. La entrevista, recurso flexible y dinámico. *Investigación en educación médica*, (2), 162- 167 or. Hemen eskuragarri:

[http://www.scielo.org.mx/scielo.php?pid=S2007-50572013000300009&script=sci\\_arttext](http://www.scielo.org.mx/scielo.php?pid=S2007-50572013000300009&script=sci_arttext)

Edmunds, L.F. (2013). El problema del hombre en nuestra época tecnológica. Años preescolares. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (3-12 or.). Editorial Rudolf Steiner.

Federación Internacional de Asociaciones Médicas Antroposóficas. (2014). *El sistema de la medicina antroposófica*. Asociación Científica de Medicina Antroposófica (ACMA).

Flick, U. (2014). *El diseño en Investigación Cualitativa*. Morata

Geroa eskola (d.g.) <https://geroaeskola.com/la-escuela/>

Gámez de Rus, I. (2019). Los tres primeros años. *Waldorf Pedagogiako prestakuntza zentroan aurkeztutako komunikazioa, Trokoniz*.

Gherbasi, A. (2015). *Introducción a la pedagogía waldorf*. Escuela babytribu.

<https://studylib.es/doc/8818431/introducci%C3%B3n-a-pedagog%C3%ADa-waldorf> -----

LEcción 1 pagina web pdf

Glöckler, M. (2016). Educar un “curar silencioso”. In Glöckler, M. Langhammer S. eta Wiechert, C. (ed.), *Salud a través de la educación. Un reto para Pedagogos, Médicos y Padres*. (7-9 or.)

Medizinische Section am Goetheanum

Gomes, A. eta Campoy, T.J. (2009). Técnicas e instrumentos cualitativos de recogida de datos.

*Editorial EOS*, (284), 1-18 or. Hemen eskuragarri:

[http://scholar.googleusercontent.com/scholar?q=cache:5RoN0h49HhEJ:scholar.google.com/+campoy+gones+tecnicas+e+instrumentos+cualitativos+de+recogida+de+datos&hl=es&as\\_sdt=0.5](http://scholar.googleusercontent.com/scholar?q=cache:5RoN0h49HhEJ:scholar.google.com/+campoy+gones+tecnicas+e+instrumentos+cualitativos+de+recogida+de+datos&hl=es&as_sdt=0.5)

Jaffke, F. (2013). La pintura y la educación artística. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (199-205 or.). Editorial Rudolf Steiner.

Klein, E. (2013). La peligrosa precocidad. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (234-239 or.). Editorial Rudolf Steiner.



- Köning, K. (2014). *Los tres primeros años del niño. Andar, Hablar, Pensar*. Editorial Rudolf Steiner.
- Kranich, E. (2013a). Educación preescolar según las necesidades del niño. In berlin, J. (ed. ), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (101-117 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Kranich, E. (2013b). Necesidad y problemática de la didáctica preescolar. In berlin, J. (ed. ), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (101-117 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Lievegoed, B.C.J. (2013). El niño hasta la segunda dentición. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (75-100 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (BOE núm. 294, de 5 de diciembre de 2018, 67 or.)
- López, C.C. (2018). *Hilando el quehacer de las maestras jardineras Waldorf en la fundación INTI HUASI Casa del Sol*. (Grado Amaierako Lana). Universidad Pedagógica nacional, Departamento de Psicopedagogía. Bogotá D.C. Hemen eskuragarri: <http://repository.pedagogica.edu.co/bitstream/handle/20.500.12209/11251/TE-22562.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Martínez, A.I. (2019). Principios de la pedagogía Waldorf y el trabajo del maestro con los padres de familia In CDA. *Seminario de formación para maestra waldorf* (1-16 or.)Centro de Desarrollo Antroposófico. Hemen eskuragarri: <http://yoltzinwaldorfcolima.com/wp-content/uploads/2020/11/ANA-ISABEL-final.pdf>
- Martner, A.C. (2016). *La experiencia artística en la formación del sujeto. Aportes de la pedagogía Waldorf*. [maestría amaierako lana]. Universidad Nacional Autónoma de México. Hemen eskuragarri: <http://132.248.9.195/ptd2016/abril/0743836/0743836.pdf>
- Moreno, M. (2010). Pedagogía Waldorf. *Arteterapia. Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, (5), 203-209 or. Hemen eskuragarri: <https://core.ac.uk/download/pdf/38828111.pdf>
- Melé, I. (2019a). Juventud. *Revista de la Asociación de Centros Educativos Waldorf-Steiner de España*, (29-30), 8-10 or.
- Melé, I. (2019a). La antroposofía en tres etapas. *Revista de asociación de centros educativos Waldorf-Steiner España*, (10), 15-19 or.
- O'Neil, G. T. (2013). Más vale tarde que temprano. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (149-150 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Orte, C., Ballester, L. Eta Oliver, J.L. (2003). Análisis cualitativo de entrevistas. *Nómadas*, (18), 140-149 or.
- Padovan, B. A. E. (1997). Reorganização Neurofuncional-Método Padovan. *Jornal Brasileiro de Ortodontia e Ortopedia Maxilar. Curitiba*, (10), 3-11 or.

- Pereira, S. (2006). *Emociones y Temperamentos*. Editorial Rudolf Steiner.
- Piza, N. D., Amaiquema, F. A., eta Beltrán, G. E. (2019). Métodos y técnicas en la investigación cualitativa. Algunas precisiones necesarias. *Conrado*, 15 (70), 455-459 or. Hemen eskuragarri: [http://scielo.sld.cu/scielo.php?pid=S1990-86442019000500455&script=sci\\_arttext&tlng=pt](http://scielo.sld.cu/scielo.php?pid=S1990-86442019000500455&script=sci_arttext&tlng=pt)
- Quiroga, P. eta Igelmo, J. (2013). La pedagogía Waldorf y el juego en el jardín de infancia. una propuesta teórica singular. *Bordón, Revista de Pedagogía*, 65 (1), 79-92 or.
- Quiroga, P. (2018a). Génesis, difusión y traducción de la pedagogía Waldorf de Rudolf Steiner. *Educació i Història: Revista d'Historia de l'Educació*, (33), 203-227 or. <https://doi.org/10.2436/20.3009.01.226>
- Quiroga, P. (2018b). *Conferencias sobre pedagogía waldorf*. Rudolf Steiner. Editorial Biblioteca Nueva.
- Rawson, M. (2007). Pedagogía Waldorf: un ciclo continuo de renovación. [Mezua blog batean]. Hemen eskuragarri: [http://waldorflibrary.org/images/stories/articles/rawson\\_china.pdf](http://waldorflibrary.org/images/stories/articles/rawson_china.pdf).
- Rawson, M. eta Richter, T. (2000). *Les tasques educatives i el contingut del Currículum Waldorf*. Quaderns Pau de Damasc.
- Sandin, M.P. (2003). La enseñanza de la investigación cualitativa. *Revista de Enseñanza Universitaria*, (21), 37-52 or.
- Schöttner, I. (2013). Un día en el jardín de niños. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (247-249 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Seydel, A. (2012). *Yo soy tú*. Barrendero ediciones.
- Steiner, R. (2014a). *La ciencia oculta. Un bosquejo*. Editorial Rudolf Steiner.
- Steiner, R. (2014b). *El estudio del Hombre como base de la pedagogía. Fundamentos de la educación Waldorf I*. Editorial Rudolf Steiner S.A.
- Steiner, R. (2013a). Andar-Hablar-Pensar. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (16-26 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Steiner, R. (2013b). Sistema rítmico- Sueño y vigilia- La imitación. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (27-40 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Steiner, R. (2013c). La formación de la voluntad y el elemento artístico. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (254-255 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Steiner, R. (2012). *Teosofía. Introducción al conocimiento Suprasensible del Mundo y del Destino Humano*. Editorial Rudolf Steiner.
- Steiner, R. (d.g.). Los fundamentos de la antroposofía. In Biblioteca Upasica (ed) *Elberfelden 1992an publikatutako Konferentzia*. (1-24 or.). Colección Antroposofía. Hemen eskuragarri:

[https://eruzf.com/martinismo/autores/r\\_steiner/rudolf\\_steiner\\_los\\_fundamentos\\_de\\_la\\_antroposofia.pdf](https://eruzf.com/martinismo/autores/r_steiner/rudolf_steiner_los_fundamentos_de_la_antroposofia.pdf)

- Steiner, R., Grahl, U., von Heydebrand, C. eta Lenz, F. (2003). *La sabiduría de los cuentos de hadas*. Editorial Rudolf Steiner S.A.
- Tejel, E. (2018). Mirando horizontes: Pedagogía Waldorf. *Publicaciones Didácticas*. (100), 554-559 or. Hemen eskuragarri: [https://publicacionesdidacticas.com/hemeroteca/pd\\_100\\_nov.pdf](https://publicacionesdidacticas.com/hemeroteca/pd_100_nov.pdf)
- Tormes, L., Gómez, A. eta Malagón, A. (2019). Origen de la Pedagogía Waldorf. *Revista de la Asociación de centros educativos Waldorf-Steiner España*, (10), 24-31 or.
- Tresserras, A. (2017). *Aportaciones a la formación del profesorado a través del análisis de una experiencia de arte y juego dramático en el primer ciclo de Educación Infantil*. [Doktorego Tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU). Hemen eskuragarri: [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/22845/TESIS\\_TRESSERRAS\\_ANGULO\\_ALAITZ.pdf?sequence=6&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/22845/TESIS_TRESSERRAS_ANGULO_ALAITZ.pdf?sequence=6&isAllowed=y)
- Txurruka, I. (2017). Pedagogo sortzaileak. Rudolf Steiner. *Hik Hasi*, (216), 30-33. Hemen eskuragarri: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20170321/pedagogo-sortzaileak-rudolf-steiner>
- Urbano, P. (2016). Análisis de datos cualitativos. *Revista Fedumar Pedagogía y Educación*, 3(1), 113-126 or.
- Von Grunelius, E. (2013). La naturaleza del niño en edad preescolar. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (157-161 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Von Kügelgen, H. (2013a). Tres conferencias pronunciadas en México, en diciembre de 1960.1. Edad de la imitación.2. La madurez para la escuela y el aprendizaje(1ª parte).3. La madurez para la escuela y el aprendizaje(2ª parte). In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (126-148 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Von Kügelgen, H. (2013b). Leyes de la infancia. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (226-230 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Von Kügelgen, H. (2013c). Hambre de cuentos de hadas. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner* (311-312 or.). Editorial Rudolf Steiner.
- Weissman, P. (2017). Hacia una educación para el buen vivir. Aportes desde las pedagogías críticas.
- Wiechert, C. (2016). Fisiología del plan de estudios: Contenidos de enseñanza adecuados a la edad y la didáctica terapéuticamente efectiva. In Glöckler, M. Langhammer S. eta Wiechert, C. (ed.), *Salud a través de la educación. Un reto para Pedagogos, Médicos y Padres*. (61-63 or.) Medizinische Section am Goetheanum.
- Wolf, H. (2019). Pensamientos de un médico. In Berlín, J. (ed.), *El primer septenio. La educación preescolar según Rudolf Steiner*(262-266 or.). Editorial Rudolf Steiner.

Woods, P. (1987). *La escuela por dentro: La etnografía en la investigación educativa*. Paidós.

## 9. ERANSKINAK

### Elkarrizketaren ahots kopuruak kategorizazioaren arabera

#### GIZAKIAREN 7- URTEKOAK (16 AHOTS)

1. si , si yo creo que es importante la permanencia asi como para ellos la permanencia y la estabilidad en las relaciones es fundamental no? que tambien es uno de los principios asi tambuenb de pickler no? la estabilidad de las relaciones afectivas porque ellos van haciendo ese vinculo y desde ahí ellos también están desarrollando y hombre ayuda mucho, ayuda mucho a ese acompañamiento y ayudan mucho las familias.
2. Nosotras lo que hemos visto que cuando continuas con las familias osea en este grupo por ejemplo hay niños que llevan tres años con nosotras o con lourdes en este caso que es la que ha continuado. y es que es muy diferente
3. si, si permanecemos en el centro siSi, las familias, para las familias es una confianza, no? esa confianza da. y tambien luego la tienen los niños.
4. Es como que conoces no?
5. la pedagogía waldorf también pone muchas imágenes a procesos, a... no? a conceptos de los que hablas. no? entonces esa parte que el saber de los niños no ? saber que él tiene tres años no? pero el saber de dónde viene no? que ha tenido año y medio
6. entonces cuando tu has estado acompañando ese anterior año y el anterior de como se puso de pie, como empezó a hablar, como empezo a relacionarse, a salir al exterior... osse a conoces esa parte
